HizBeGia´07

Gipuzkoarren Hizkuntza Pertzepzioen Inkesta Kuantitatiboa 2007

Siadeco
ikerketa aplikatua

OINARRIZKO DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA

BIZIKIDETZA LINGUISTIKOA GIPUZKOAN:
GIPUZKOAKO ELEANIZTASUNARI BURUZKO IKERKETA PERTZEPTUALA

A U R K I B I D E A

Orria

1.- IKERLANAREN TESTUINGURUA ETA LANERAKO METODOLOGIA 4
1.1.- Ikerlanaren testuingurua: Teknikari programa eta 2007ko laborategia 5
1.2.- Inkestaren fitxa teknikoa 8

2.- LEHEN HIZKUNTZA, HIZKUNTZA TRANSMISIOA ETA EUSKARAREN GALERA-IRABAZIAK 9
2.1.- Lehen hizkuntza 10
2.2.- Hizkuntza transmisioa 13
2.3.- Euskararen galera-irabaziak 16
2.4.- Seme-alaben hizkuntza gaitasunarekiko interesa 20

3.- HIZKUNTZA GAITASUNA 22
3.1.- Euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa 23
3.2.- Euskararen ezagupen mailaren araberako hizkuntza tipologiak 26
3.3.- Elebitasun mota, euskara eta gaztelaniaren ezagutzari jarraiki 29
3.4.- Eleaniztasun maila 33
3.5.- Hizkuntza gaitasun alderatua 36
3.6.- Hiztun talde desberdinen ezaugarri soziodemografikoak 38

4.- HIZKUNTZEN ERABILERA MAILA 41
4.1.- Hizkuntzen erabilera maila eremu desberdinetan 42
4.2.- Euskararen erabilera indizea eta emaitzak 44
4.3.- Euskararen erabilera mailaren araberako tipologiak eta hiztun taldeen ezaugarriak 52

5.- HIZKUNTZEN ARTEKO BIZIKIDETZA 59
5.1.- Euskara erabili nahi eta ezina 60
5.2.- Erantzukizunen banaketa 62
5.3.- Argibide faktoreak 64
5.4.- Euskara eta gaztelaniarekiko identifikazio afektiboa 66
5.5.- Elebitasun ofizialarekiko balorazioa 69

6.- HIZKUNTZEN IRUDIKARI SOZIALA 72
6.1.- Hizkuntza desberdinen irudi atributuak 73
6.2.- Euskararen irudi atributuak, adina, eskualdea, elebitasun mota eta erabilera mailari jarraiki 75

7.- HIZKUNTZENGATIKO BEHAR ETA INTERES PERTSONALA 83
7.1.- Eguneroko bizitzarako beharra 84
7.2.- Interes pertsonalaren bilakaera 92

8.- HIZKUNTZEN IKASKETA 94
8.1.- Hizkuntzen ikasketa 95
8.2.- Helburuen lorpena 96

9.- HIZKUNTZEN PRESENTZIA SOZIALA 97
9.1.- Presentzia sozialaren iraganeko bilakaera 98
9.2.- Presentzia sozialaren etorkizuneko bilakaera 99
9.3.- Erabilera pertsonalaren etorkizuneko ikuspegia 100
9.4.- Hizkuntzen presentzia-mailarekiko pertzepzioak, euskararen ezagupenari jarraiki 101

10.- NORMALIZAZIO JARDUERAREN BALORAZIOA 103
10.1.- Normalizazio eragileen balorazioa 104
10.2.- Baliabideen erabilerari buruzko iritzia 107

11.- ONDORIO NAGUSIAK 109

1.-

IKERLANAREN TESTUINGURUA ETA LANERAKO METODOLOGIA

1.1.- IKERLANAREN TESTUINGURUA: TEKNIKARI programa eta 2007ko LABORATEGIA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuko Euskara Zuzendaritza Nagusiarentzat Siadecok koordinatzen duen TEKNIKARI programaren barruan egindako ikerlana izan da berau. Zehazki esateko, programa horrek aldi berean badu Hizkuntza Normalkuntzarako esperientzia berriak diseinatu eta praktikara eramateko LABORATEGI bat eta 2007 urtean LABORATEGI horretan parte hartu duten Gipuzkoako Udal batzuetako euskara teknikariekin elkarlanean arituz, Siadecok gidatu eta burura eramandako ikerketa aplikatua da txosten honetan bildutakoa.

Garrantzitsua da ordea, ikerketa honetarako emaitzak eman dituen inkesta egitea erabaki aurretik emandako urratsen eta ikerketa honi emandako zentzuaren berri izatea. Inkesta egin aurretik jarraitutako prozesuaz modu labur batean gogoratu beharreko puntuak ondorengoak dira:

- Gipuzkoa mailan, hizkuntza normalkuntzarako komunikazio eta sentsibilizazio estrategia berriekin lan egitea ahalbideratuko duen SORTUZ egitasmo bat diseinatu du Siadecok Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat TEKNIKARI programarako egindako kontratazioaren barruan. Hizkuntza normalkuntzarako eraginkortasun handiagoa eta oinarri zientifiko-teknikoa ziurtatzen duen komunikazio espazio gisa irudikatu daitekeen egitasmoa litzateke.

- SORTUZ egitasmoa, barne komunikaziorako eta kanpo komunikaziorako eginbeharrak eta estrategiak biltzen dituena izanik eta barne komunikaziorako ekintzak nagusiki Gipuzkoako udal euskara teknikariei zuzendu beharrekoak izanik, barrura begira, SORTUZ, dagoeneko martxan dagoen egitasmoa dela kontsideratzen dugu. Hori hala da, hain zuzen ere, euskararen sustapen eta normalkuntza alorrean, hartzaile edo publiko desberdinekin lan egin eta publiko desberdinengana iristeko planteamendu metodologiko integral bat praktikara eramatea lortu nahi duelako TEKNIKARI programak. Talde-xede edo publikoetako bat Gipuzkoako udal euskara teknikarien multzoa izanik, multzo horren ezaugarri, soziolinguistika alorreko planteamendu eta hizkuntza normalkuntzarako aplikatzen diren egitasmo edota politikei buruzko informazioa biltzea lortu da. Hori hala izan da, zuzenean edo zeharka, TEKNIKARI programaren barruan antolatutako komunikazio, informazio edota heziketa saioetan udal euskara teknikarien partehartzea altua izan delako eta eskatu zaien informazioa emateko ahalegina egin dutelako. SORTUZ egitasmoaren kanpo komunikaziorako estrategietarako ordea, edo gipuzkoarren hizkuntza pertzepzio eta ohituretan eragitea helburu dutenetarako, gipuzkoar biztanleria berari dagokion informaziorik ez zegoen eta hortik sortzen da Gipuzkoa mailako inkesta bat egiteko beharra.

Gipuzkoar biztanleriaren hizkuntza desberdinekiko pertzepzioak lehendabiziko aldiz ezagutu eta euskarari dagokionean informazio kuantitatibo berria jasotzeko ikerketa aplikatu bat egitearen arrazoi nagusiak ondorengoak izan dira beraz:

- Euskararen normalizazio ahaleginean eta euskararekiko diskurtsoetan berrikuntzak sartu ahal izateko informazio berria eskuratu beharra. Hori, Siadeco enpresaren jakintzatik eta hizkuntza normalizazio alorrean eta gizarte komunikazioan duen esperientzia profesionaletik abiatuta egin da; horretan oinarrituta egin ahal izan baitira hizkuntzei dagokienean gipuzkoar biztanleriari galdetzeko formulazio berriak.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2007ko LABORATEGIAn parte hartu duten udal euskara teknikariekin kontrastatu dira, lehentasunezkoak kontsideratu diren eta inkesta kuantitatibo bat eginez ase daitezkeen informazio beharrak. Irizpide teknikoei jarraiki lan prozedura bat jarraitu du LABORATEGIAk eta Siadecoko lantaldearen eta udal teknikarien artean zer galdetu, zergatik galdetu, nola galdetu, nori galdetu eta abar definitu eta adostu da.

LABORATEGIrako udal teknikarien taldea osatzerakoan aplikatu irizpideak ondorengoak izan dira:

1.- Eskualde desberdinetako ordezkaritza ziurtatzea.

2.- Funtzio desberdinetan eta arlo desberdinetan ere lan egiten dutenak lantaldeko kideen artean egotea (euskara + kultura + gazteria + …).

3.- Egoera soziolinguistiko desberdina duten udalerrietako teknikariak izatea.

4.- Formazioz perfil desberdinekoak .

5.- Arlo soziolinguistikoan teknikari lanetan duten esperientzia, luzeagoa edo laburragoa izatea.

6.- Lehendik laborategiko proiektuan parte hartu duen udalerria ez izatea

Jarraian, 2007ko LABORATEGIAn parte hartu duten zerrenda eransten dugu:

	Udalerria	Normalizazio Teknikaria
UDALEKO TEKNIKARIAK	• Lezo	• Jose Mari Iraola
	• Donostia	• Alex Aisa
	• Billabona	• Maite Arregi
	• Bergara	• Estepan Plazaola
	• Deba	• Amaia Zinkunegi
	• Mutriku	• Joseba Palenzuela
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO TEKNIKARIA	• Nekane Jauregi	
LABORATEGIAren ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA	• SIADECOko teknikariak: Jon Arrugaeta eta Juan Jose Allur	

LABORATEGIAren dinamika eta funtzionamendu egokirako, Siadecok proposatutako baldintzak, neurriak edota urratsak berriz ondorengoak izan dira:

1. Taula: 2007ko LABORATEGIAREN funtzionamendu irizpideak eta bestelako alderdiak

Oinarrizko alderdiak	Deskribapena eta ezaugarriak.
LABORATEGIAren praktikarako FASE nagusiak	- Ikerketa aplikatu bat burutzea: diseinua, plangintza, egikaritza eta jarraipen lanak. - Ikerketa aplikatuaren emaitzetatik abiatuta, hasierako komunikazio fasea diseinatu eta burutzea.
Ikerketaren FITXA TEKNIKOA	15 urtez gorako Gipuzkoako populazioaren lagin adierazgarri bati egindako inkesta pertsonala; telefono bidezko inkesta, 1200 laguneko lagin bati, %95.5eko konfiantza-tarterako ±%3ko errore-marjina estatistiko globala bermatzeko eta p=q=0.5 den kasurik okerrenean zorizko laginketa eginez. Laginaren eskualdekako banaketa, ez proportzionala izan da, eskualde bakoitzeko 15 urtez gorako biztanleriaren arabera, erro karratuaren arabera egindakoa. Inkestaren fitxa teknikoaren gaineko xehetasun gehiago aurrerago jasoa dago, txosten honen "1.4" atalean.
Ikerlanerako GAIA	Gipuzkoa mailan, hizkuntzen arteko bizikidetasun maila zenbaterainokoa den ezagutzea. Populazioaren heterogeneotasun eta dibertsitate linguistikoarekiko planteamendu analitiko bat garatzea planteatu zen xede modura. Horretarako, hizkuntza arteko eta hizkuntza barneko ikuspegia garatuz, eta informazioaren analisi modu sinkroniko eta diakronikoa ere egiteko aukerak izanez. Beste modu batera esanda, Gipuzkoako gizartean hizkuntzek duten bizitza eta funtzionamendu soziala ezagutu nahian egindako ikerketa izan da, ondoren eta behin hori ezagututakoan, gipuzkoar biztanleriari zuzendutako dibulgazio eta sormen estrategiak landu eta inplementatzera iritsi ahal izateko.
SIADECOren funtzioak	- TEKNIKARI programaren barruan eta zehazki 2007ko LABORATEGIAren barruan bideratu beharreko ikerketa aplikatuaren zuzendaritza eta garapena. - Kanpo-komunikazioaren lehen urratserako sortze-estrategia eta bitartekoei buruzko informazioaren ekarpena.
Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuaren funtzioak	- Prozesuaren jarraipen, kontraste eta ebaluazioa. - LABORATEGIko praktiketan parte hartzea. - Kanpo komunikazio estrategietarako eta ekintzetarako beharrezko diren bitarteko eta baliabideak ipini eta "aktibatzea".
Udal teknikarien funtzioak	- Ikerketa aplikatuaren fase desberdinetarako ekarpenak egin eta jarraipen lana egitea: LABORATEGIko saioetan parte hartu, informazio ematea, formazioa jasotzea eta esperientzien elkartrukea. - Izaera kuantitatiboa duen soziolinguistika alorreko ikerketa aplikatu baten nondik norakoak ezagutzea: lan metodologia zehazteko moduak, lan faseak, informazio bilketarako euskarriak…

1.2.- INKESTAREN FITXA TEKNIKOA

15 URTETIK GORAKO GIPUZKOAKO BIZTANLERIAREN LAGIN ADIERAZGARRI BATI EGINDAKO INKESTA PROZESUAREN FITXA TEKNIKOA

Unibertsoa

Gipuzkoan erroldatutako 15 urtetik gorako herritarrak: 601.123 pertsona.

Teknika

Aztergai izan den unibertsoaren lagin adierazgarri bati galdetegi bidez egindako elkarrizketa pertsonalak.

Galdetegiaren neurria: 40 galdera, 235 item eta 247 grabazio posizio.

Laginaren neurria

15 urtetik gorako 1.200 pertsona, honela banatuta sexu eta adinaren arabera:

	Sexua		Adina					GUZ-TIRA
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-64 urte	65 eta gehiago	
Lagina	**600**	**600**	**240**	**240**	**240**	**240**	**240**	**1.200**
Populazioa	293.290	307.833	120.403	114.886	107.607	132.201	126.026	601.123

Laginketa mota

Etapa anitzeko laginketa geruzatua, modu ez proportzional eta interesatuan banatua; zehazki, Gipuzkoako eskualde bakoitzeko unibertsoaren (15 urtez gorako biztanleriaren) erro karratuak ordezkatzen duen proportzioaren arabera banatutako lagina izan da. Udalerri eta etxebizitzen zorizko hautaketa lehendabizi egin eta ondoren, lagin unitateko pertsonen zorizko aukeraketa ere eginez; beti, inkestatzeko xede-unibertsoaren sexu eta adinaren banaketaren araberako kuota sistema zuzentzailea aplikatuaz. Inkestako datuak, ponderatu edo haztatu egin dira ondoren, eskualde bakoitzeko biztanleriak Gipuzkoa osoarekiko hartzen duen pisuaren baitan.

Errore-marjina estatistikoa

Errore-marjina globala: ±%2.9 datu haztatuekin, %95.5eko konfiantza-tarterako (zorizko laginketa sinplea egiten den ustean, p=q=0.5 denean).

Unibertsoaren lurraldekako banaketa eta lagina (eskualdeka) eta errore-marjinak

	15urtetik gorako populazioa		Esleipen ez proportzionala		
			Laginaren banaketa		Errore-marjina (%)
	Absolutuak	(%)	Absolutuak	(%)	
Bidasoa-Behera	65.770	10,94	190	15,83	±7.2
Deba Behera+ Deba Garaia	102.132	16.99	230	19.17	±6.6
Donostialdea	278.741	46,37	380	31,67	±5.1
Goierri+Tolosaldea	95.566	15.90	220	18.33	±6.7
Urola-Kostaldea	58.914	9,80	180	15,00	±7.4
GIPUZKOA	601.123	100,0	1.200	100,0	±2.9

Iturria: INE, 2006-1-1. Siadecok landua

Landa-lanaren denbora tartea

Hasiera data: 2007ko ekainaren 26a.

Amaiera data: 2007ko irailaren 6a.

2.-

LEHEN HIZKUNTZA, HIZKUNTZA TRANSMISIOA ETA EUSKARAREN GALERA-IRABAZIAK

2.1.- LEHEN HIZKUNTZA

Gaur egungo 15 urtez gorako gipuzkoarrek haurtzaroan hiru urte bete aurretik ikasitako hizkuntza zein den edo lehen hizkuntza modura gipuzkoarrek bereganatutako lengoaiaren datuak aztertuz, gipuzkoar erdien (%51,7) lehen hizkuntza gaztelania da, %37,7arena euskara eta biak (euskara eta gaztelania) %6,6arena. Adierazgarria da lehen hizkuntza ez euskara eta ez gaztelania ez den beste hizkuntza bat duten gipuzkoarrak %4 badirela.

1. Grafikoa: Zein izan zen haurtzaroan ikasi zenuen lehen hizkuntza? (3 urte bete aurretik) (%)



Fuente: Siadeco, 2007.

1986tik aurrera, gutxi gora behera azken 20 urteetako bilakaerari erreparatuz, lehen hizkuntza gisa atzerriko hizkuntzaren bat dutenen multzoak gora egin du (%1,8tik %4,0ra igaroz) baina gainontzeko ehunekoetan ez dago alde nabarmenik: euskara bakarrik, %37 eta %38aren bueltan dabil, gaztelania soilik %54 eta 51 artean kokatzen da eta lehen hizkuntza gisa biak (euskara eta gaztelania) jaso dituztenen multzoak berriz, %6 inguruko pisua du.

2. Taula: Lehen hizkuntzaren bilakaera Gipuzkoan, 1986-2001

	1986		1991		1996		2001	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskara	263.948	38,3	263.807	39,0	261.312	38,6	254.912	37,9
Gaztelania	368.766	53,5	365.556	54,0	364.115	53,9	366.527	54,4
Biak	44.261	6,4	37.446	5,5	40.272	6,0	40.765	6,1
Beste bat	12.247	1,8	9.679	1,4	10.509	1,6	11.359	1,7
GUZTIRA	**689.222**	**100,0**	**676.488**	**100,0**	**676.208**	**100,0**	**673.563**	**100,0**

Iturria: EUSTAT, 1986,1991,1996 eta 2001

Lehen hizkuntzaren datuak adin-multzoka aztertzerakoan zera nabarmendu daiteke:

- 60 urtez gorakoen artean, lehen hizkuntza gisa euskara soilik jaso dutenen portzentaia altuena da (%45) eta biak (euskara eta gaztelania) jaso dituztenena berriz baxuena (%4).
- Gazte heldu eta helduen multzoan berriz (hasi 31 urtetik eta 60 urtera arte), lehen hizkuntza gaztelania dutenen ehunekoak batez bestekoaren gainetik daude.
- Gazteen adin multzoan azkenik (15-30 urte), bi hizkuntzak jaso dituztenen ehunekoa altuena da (%10) eta gaztelania soilik erantzun dutenena berriz baxuena (%46).



Eskualdearen arabera, 15 urtez gorako biztanleriaren erdia baino gehiagoren lehen hizkuntza gaztelania da Bidasoa Beherean (%62), Donostialdean (%60) eta Debarroan (%52) eta euskara berriz, Urola Kostaldean (%68) eta Goierri-Tolosalean (%52).



2.2.- HIZKUNTZA TRANSMISIOA

Familiako hizkuntza transmisioaren datu kuantitatiboen analisia jasotzen duen atala da berau. Belaunaldi batetik bestera etxean transmititutako hizkuntza zein den eta nola transmititzen ari den jakiteak berebiziko garrantzia du; hizkuntza jakin bat norbereganatzeko modu naturala, hots txikitatik gurasoengandik jasotakoa –edo lehen mailako harremanetatik ikasitakoa- izan, edo bestelako bideetatik jasotakoa izan (kulturalki hezkuntza sistemaren bitartez ikasitakoa esate baterako), hizkuntza horren lehen ikasketa prozesurako norbanakoak egiten duen ibilbidea desberdina da; ibilbide bat edo bestea egin izanak (eta ez biak), asko baldintzatzen ditu hizkuntzaren gaitasun mota nahiz erabilera mota eta hizkuntza ohituretan ere aldeak eragiten dituela erakusten dute ikerketa honetako datuek.

Euskararen transmisio naturalean Gipuzkoan etenik gertatzen ari ote den, edo lehen hizkuntza oraingo gaitasunarekin alderatuz euskararen galera-irabaziei dagozkien datuak aztertu aurretik, zenbait datu orokor aurreratuko ditugu jarraian.

Gaur egungo 15 urtez gorako gipuzkoarrak hartuta, belaunaldi batetik bestera gaztelaniaren hizkuntza gaitasunean izandako igoera handiagoa da euskararenean izandakoa baino: inkestatuen erdiek (%50,6) euskaraz ongi edo oso ongi hitz egiteko gai direla erantzun dute eta inkestatuen gurasoena %46 eta 48 artean kokatzen da (%46,7 aita eta %48,4 ama); ondorioz 2 puntu inguruko aldea legoke belaunaldi batetik bestera euskararen kasuan. Mintzatzerakoan gaztelania ongi edo oso ongi dakitenak inkestatuen %98 dira eta euren aita-ametan ehuneko hori %87 eta 88aren bueltan kokatzen da; ondorioz gaztelaniak gurasoetatik seme-alabetara izandako igoera 10 puntu ingurukoa da, gaztelaniazko gaitasun-maila euskarazkoa baino altuagoa izanik gainera.



Inkestatuek lehen hizkuntza gisa bereganatutako edo ikasitako hizkuntza, gurasoen euskara gaitasunarekin alderatuz, euskararen familia mailako transmisioaren datuak zein diren aztertu dugu jarraian:

- Bi gurasoak euskaldunak dituen edo zituen gipuzkoarren 10etik 8k euskara jaso dute lehen hizkuntza modura, %14k gaztelania eta %6k euskara eta gaztelania.
- Aitak euskara ez dakienean baina amak bai, euskararen etxeko transmisioa %58an gertatzen da (%35 euskara eta %23 biak).
- Aldiz ama denean euskara ez dakiena, ehuneko hori %46ra jaisten da (%24 euskara eta %22 biak). Kasu honetan erdien (%50) lehen hizkuntza gaztelania da.
- Bi gurasoak erdaldunak direnean, seme-alaben lehen hizkuntza gaztelania da %88 batean, euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat %8 batean; euskara soilik %2 eta gaztelaniarekin batera beste %2.


5. Grafikoa: Lehen hizkuntza, gurasoen euskara gaitasunaren arabera (%)
Biak (euskara eta gaztelania)
Euskara
Gaztelania
Besterik
%
100
80
60
40
20
0
80,0
6,4
13,6
22,9
34,9
40,6
1,6
22,4
24,0
50,5
3,1
2,0
2,0
88,0
8,0
6,6
37,7
51,8
3,9
Biek dakite/zekiten EUSKARA
Amak bai, aitak ez
Aitak bai, amak ez
Ez batak ez besteak
GUZTIRA
Gurasoen hizkuntza gaitasuna
Iturria: Siadeco, 2007.


6. Grafikoa: Elebitasun mota, gurasoen euskara gaitasunaren arabera (%)
Elebakar euskalduna + euskal elebiduna
Elebidun orekatua
Erdal elebiduna
Elebidun hartzailea
Erdaldun elebakarra
%
100
80
60
40
20
0
19,8
26,0
42,7
6,3
5,1
30,8
18,7
9,9
19,8
20,9
20,8
19,4
16,7
18,1
25,0
9,7
3,5
1,5
29,9
55,6
16,1
14,7
19,8
18,8
30,6
Biek dakite/zekiten EUSKARA
Amak bai, aitak ez
Aitak bai, amak ez
Ez batak ez besteak
GUZTIRA
Gurasoen hizkuntza gaitasuna
Iturria: Siadeco, 2007.

2.3.- EUSKARAREN GALERA-IRABAZIAK

Euskararen galera-irabazien neurketarako, inkestatuen lehen hizkuntza egungo hizkuntza gaitasunarekin alderatu da, honatx emaitzarik nagusienak:

- Lehen hizkuntza euskara izan dutenen %92k euskara ongi hitz egiten dute, %5ek zertxobait eta %3k euskara galdu dute. Adinari jarraiki zaharrenetatik gazteenetara joanaz, euskararen galera indizea gero eta txikiagoa da, 46 urtez gorakoetan 10etik 1 bai baita euskararen ezagupenean atzera egin duena.
- Lehen hizkuntza gaztelania izan dutenak soilik hartuta, horien artean egun euskara ongi dakitenak %20 dira eta euskara zertxobait hitz egiteko gai direnak %28.
- Lehen hizkuntza gisa biak jaso dituztela erantzundakoen artean, euskaraz ongi hitz egiteko gai direnak %82 dira, lehen hizkuntza euskara soilik jaso duten multzoarekin alderatuta 10 puntuko aldea.

3. Taula: Euskararen galera-irabaziak lehen hizkuntzari eta adinari jarraiki (%)
(%100, lehen hizkuntzako egoera bakoitzarekiko kalkulatua)

	Gazteak (15-30 urte) (100,0)	Gazte helduak 31-45 urte) (100,0)	Helduak (46-60 urte)	Adinekoak (≥61 urte)	GUZTIRA
Lehen hizkuntza euskara					
Euskara ongi hitz egiten du	95,2	98,2	88,0	88,8	92,5
Euskara zertxobait hitz egiten du	3,8	1,8	6,0	6,7	4,7
Ez du euskara hitz egiten	1,0	-	6,0	4,5	2,9
Lehen hizkuntza gaztelania					
Euskara ongi hitz egiten du	36,4	23,1	11,0	10,1	19,8
Euskara zertxobait hitz egiten du	33,1	35,6	26,5	15,2	28,3
Ez du euskara hitz egiten	30,6	41,3	62,6	74,6	51,9
Lehen hizkuntza biak (euskara eta gaztelania)					
Euskara ongi hitz egiten du	96,3	84,0	66,7	72,7	82,7
Euskara zertxobait hitz egiten du	3,7	16,0	22,2	9,1	12,3
Ez du euskara hitz egiten	-	-	11,1	18,2	4,9
Lehen hizkuntza beste bat					
Euskara ongi hitz egiten du	20,0	-	-	-	4,3
Euskara zertxobait hitz egiten du	10,0	23,5	16,7	14,3	17,0
Ez du euskara hitz egiten	70,0	76,5	83,3	85,7	78,7

Iturria: Siadeco, 2007.

4. Taula: Euskararen galera-irabaziak lehen hizkuntza eta eskualdeari jarraiki (%)
(%100, lehen hizkuntzako egoera bakoitzarekiko kalkulatua)

	Bidasoa Beherea	Debarroa	Donos-tialdea	Goierri eta Tolosaldea	Urola Kostaldea	GUZTIRA
Lehen hizkuntza euskara						
Euskara ongi hitz egiten du	91,2	97,6	87,9	89,8	97,5	92,0
Euskara zertxobait hitz egiten du	2,9	1,2	9,6	5,1	1,3	5,1
Ez du euskara hitz egiten	5,9	1,2	2,5	5,1	1,3	2,9
Lehen hizkuntza gaztelania						
Euskara ongi hitz egiten du	14,8	25,5	14,2	34,2	37,9	19,7
Euskara zertxobait hitz egiten du	23,5	18,9	36,3	16,4	17,2	28,4
Ez du euskara hitz egiten	61,7	55,7	49,5	49,3	44,8	51,9
Lehen hizkuntza biak (euskara eta gatelania)						
Euskara ongi hitz egiten du	71,4	90,0	83,3	84,6	87,5	83,8
Euskara zertxobait hitz egiten du	14,3	-	16,7	7,7	12,5	12,5
Ez du euskara hitz egiten	14,3	10,0	-	7,7	-	3,8
Lehen hizkuntza beste bat						
Euskara ongi hitz egiten du	-	-	-	40,0	-	4,2
Euskara zertxobait hitz egiten du	33,3	40,0	15,4	-	33,3	20,8
Ez du euskara hitz egiten	66,7	60,0	84,6	60,0	66,7	75,0

Iturria: Siadeco, 2007.

15 urtez gorako biztanleria osoa kontuan hartu eta ehuneko orokorretara jota, euskararen galera-irabazien indizeak ondorengoak izango lirateke:

- Euskararen galera indizea %4 da: Gipuzkoako 15 urtez gorako biztanleriaren %1,1aren lehen hizkuntza euskara da eta ez du euskara hitz egiten, %1,7aren lehen hizkuntza euskara da eta euskara zertxobait hitz egiten du, %0,3aren lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dira eta ez du euskara hitz egiten eta %0,8aren lehen hizkuntza ere biak dira eta euskara zertxobait hitz egiten du.

- Euskararen irabazi indizea %10ekoa da: biztanleriaren %10,2aren lehen hizkuntza gaztelania da eta euskara ongi hitz egiten du eta biztanleriaren 0,2aren lehen hizkuntza euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat da eta euskara ongi hitz egiten du.

- Euskararen irabazi-galera indizea positiboa da orokorrean, %6koa izanik eta adin multzoen araberako aldeak nahiko handiak dira, 45 urtez beherakoetan indize hori positiboa izanez eta 45 urtetik gorakoen artean berriz negatiboa. Eskualdeka Debarroak du irabazi-galera indizerik positiboena (%11,6) eta Donostialdeak berriz baxuena (%3,8). Adierazgarria da bestalde Tolosaldea-Goierri eskualdea dela bai euskararen galera indizea eta baita irabazi indizea ere altuenak dituen Gipuzkoako zonaldea.



5. Taula: Euskararen galera-irabaziak, adinari jarraiki (%)

	Gazteak (15-30 urte)	Gazte helduak 31-45 urte)	Helduak (46-60 urte)	Adinekoak (≥61 urte)	GUZTIRA
Lehen hizkuntza euskara	**39,7**	**31,1**	**35,8**	**45,1**	**37,6**
Euskara ongi hitz egiten du	37,8	30,6	31,5	40,1	34,7
Euskara zertxobait hitz egiten du	1,5	0,6	2,2	3,0	1,7
Ez du euskara hitz egiten	0,4	-	2,2	2,0	1,1
Lehen hizkuntza gaztelania	**46,2**	**57,3**	**55,6**	**46,5**	**51,8**
Euskara ongi hitz egiten du	16,8	13,2	6,1	4,7	10,2
Euskara zertxobait hitz egiten du	15,3	20,4	14,7	7,1	14,7
Ez du euskara hitz egiten	14,1	23,7	34,8	34,7	26,9
Lehen hizkuntza biak (euskara eta gatelania)	**10,3**	**6,9**	**6,5**	**3,7**	**6,7**
Euskara ongi hitz egiten du	9,9	5,8	4,3	2,7	5,6
Euskara zertxobait hitz egiten du	0,4	1,1	1,4	0,3	0,8
Ez du euskara hitz egiten	-	-	0,7	0,7	0,3
Lehen hizkuntza beste bat	**3,8**	**4,7**	**2,2**	**4,7**	**3,9**
Euskara ongi hitz egiten du	0,8	-	-	-	0,2
Euskara zertxobait hitz egiten du	0,4	1,1	0,4	0,7	0,7
Ez du euskara hitz egiten	2,7	3,6	1,8	4,0	3,1
GUZTIRA	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**
Euskararen galera indizea	2,3	1,7	6,5	6,1	4,0
Euskararen irabazi indizea	17,6	13,2	6,1	4,7	10,4
Euskararen irabazi-galera indizea	15,3	11,6	-0,4	-1,3	6,4

Iturria: Siadeco, 2007.



6. Taula: Euskararen galera-irabaziak, eskualdeari jarraiki (%)

	Bidasoa Beherea	Debarroa	Donos-tialdea	Goierri eta Tolosaldea	Urola Kostaldea	GUZ-TIRA
Lehen hizkuntza euskara	26,0	41,0	28,2	51,9	66,4	37,7
Euskara ongi hitz egiten du	23,7	40,0	24,8	46,6	64,7	34,7
Euskara zertxobait hitz egiten du	0,8	0,5	2,7	2,6	0,8	1,9
Ez du euskara hitz egiten	1,5	0,5	0,7	2,6	0,8	1,1
Lehen hizkuntza gaztelania	61,8	51,7	59,5	38,6	24,4	51,7
Euskara ongi hitz egiten du	9,2	13,2	8,5	13,2	9,2	10,2
Euskara zertxobait hitz egiten du	14,5	9,8	21,6	6,3	4,2	14,7
Ez du euskara hitz egiten	38,2	28,8	29,5	19,0	10,9	26,8
Lehen hizkuntza biak (euskara eta gatelania)	5,3	4,9	7,6	6,9	6,7	6,7
Euskara ongi hitz egiten du	3,8	4,4	6,3	5,8	5,9	5,6
Euskara zertxobait hitz egiten du	0,8	-	1,3	0,5	0,8	0,8
Ez du euskara hitz egiten	0,8	0,5	-	0,5	-	0,3
Lehen hizkuntza beste bat	6,9	2,4	4,7	2,6	2,5	4,0
Euskara ongi hitz egiten du	-	-	-	1,1	-	0,2
Euskara zertxobait hitz egiten du	2,3	1,0	0,7	0,0	0,8	0,8
Ez du euskara hitz egiten	4,6	1,5	4,0	1,6	1,7	3,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Euskararen galera indizea	3,8	1,5	4,7	6,3	2,5	4,1
Euskararen irabazi indizea	9,2	13,2	8,5	14,3	9,2	10,3
Euskararen irabazi-galera indizea	5,3	11,7	3,8	7,9	6,7	6,3

Iturria: Siadeco, 2007.

2.4.- SEME-ALABEN HIZKUNTZA GAITASUNAREKIKO INTERESA

16 urtez beherako seme-alabak dituzten 10 gipuzkoarretatik 8rentzat, euren ondorengoek euskara eta gaztelania ondo menderatzeak garrantzia handia du; seme-alabek ingelesa jakiteri garrantzia handia ematen diotenak ere hirutik bi badira. Gainera "garrantzia handia" ematen dietenei "nahikoa" ematen dietela erantzun dutenak erantsita, nahiko parean (%92 eta 95 artean) daude hiru hizkuntzak (euskara, gaztelania eta ingelesa); gurasoen hizkuntzekiko interes hori erdira jaisten da frantsesaren kasuan.

9. Grafikoa: 16 urte ala gutxiagoko seme-alabarik baduzu, zenbaterainoko garrantzia dauka seme-alaba horiek ondorengo hizkuntzak ondo menperatzeak (%)



Iturria: Siadeco, 2007.

Hein handiagoan edo txikiagoan, 16 urte arteko seme-alaben guraso ia guztien nahia da beren ondorengoek gaztelania menderatzea (%96), euskara menderatzea (%96) eta ingelesa menderatzea (%94). Frantsesaren kasuan nahi hori gurasoen erdira jaisten da (%49). Jarrera horiek inkestatuen lehen hizkuntza eta hizkuntza gaitasunarekin gurutzatuz, ondorengo joerak atzematen dira:

- Seme alaben euskara gaitasunarekiko interes maila handiagoa da euskara kulturalki ikasi dutenetan eta euskara zerbait edo erabat galdu dutenen artean. Aldiz euskara etxean jaso duten euskaldun zaharren artean, seme-alaben gaztelania eta ingelesaren ezagutza mailarekiko arreta handiagoa da euskararenarekikoa baino.
- Lehen hizkuntza gaztelania duten ez euskaldunek aldiz, seme-alabei begira euskarari gaztelaniari baino garrantzia handiagoa ematen diete.



7. Taula: Seme-alaben hizkuntza gaitasunarekiko interesa, hizkuntza desberdinetan (interes handia edo nahikoa)

Hizkuntza jarrerak	Lehen hizkuntza euskara+BIAK eta ongi hitz egiten du	Lehen-hizkuntza euskara+BIAK eta zertxobait hitz egiten du	Lehen-hizkuntza euskara+BIAK eta ez du hitz egiten	Lehen-hizkuntza gaztelania+ BESTERIK eta ongi hitz egiten du	Lehen-hizkuntza gaztelania+ BESTERIK eta zertxobait hitz egiten du	Lehen-hizkuntza gaztelania+ BESTERIK eta ez du hitz egiten	GUZTIRA
Euskara	92,7	100,0	100,0	100,0	94,1	97,7	95,5
Gaztelania	95,5	100,0	66,7	100,0	97,1	92,0	96,1
Ingelesa	95,5	100,0	100,0	97,1	95,6	89,8	94,2
Frantsesa	53,6	60,0	33,3	40,0	42,6	48,9	48,7

Iturria: Siadeco, 2007.

3.-

HIZKUNTZA GAITASUNA

3.1.- EUSKARA, GAZTELANIA, INGELESA ETA FRANTSESA

Gaztelania, 15 urtez gorako ia gipuzkoar guztiek dakiten hizkuntza da, mintzamen trebezietan oso ongi edo ongi ulertzeko gai baitira %99 eta oso ongi edo ongi hitz egiteko %98. Euskarari dagokionean, 15 urtez gorako gipuzkoarren erdiek badakite euskara (ulertu %61ek eta hitz egin %51k) eta gazteenen artean, hots 15-30 urte artekoen artean, euskararen ezagupen maila hori dutenak 3tik ia 2 ere badira (hitz egin %65 eta ulertu %79).

Atzerriko hizkuntzen artean ingelesa eta frantsesari buruzko datuak bildu dira eta ingelesez mintzatzeko 5etik 1 gai da (%20) eta frantses hizkuntzan gipuzkoarrek ahozko komunikaziorako duten ezagupen maila nabarmen baxuagoa da (%10 dira ongi edo oso ongi hitz egiteko gai).

11. Grafikoa: Zenbateraino zara gai ondoren aipatutako hizkuntza bakoitza ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko edo idazteko?(%)



Iturria: Siadeco, 2007.

Lau hizkuntzak banaka hartu eta bakoitzean hizkuntza trebezien araberako gaitasunaren datuak aztertuz zera ikusten da:

- Familia mailako hizkuntza transmisioak pisu handiagoa izan duen Gipuzkoako bi hizkuntza ofizialen kasuan, gaztelania eta euskararenean alegia, gaitasunak goitik beherako bidea egiten du, zuzeneko hizkuntza trebezietatik (ulertu eta hitz egin) zeharkakoetara igarotzerakoan (irakurri eta idatzi) eta baita ulermenekoetatik edo jasotzeko trebezietatik (ulertu ahoz eta irakurri) mintzamen edo igorpenekoetara pasatakoan ere (hitz egin eta idatzi). 15 urtez gorako gipuzkoarren datu orokorrak hartuta, euskara eta gaztelania hizkuntzen kasuan, hizkuntzaren norberaganatze fluxuak orekatuak direla kontsidera daiteke. Ikasketa prozesu kulturalaren bitartez hein handi batean ikasi diren beste bi hizkuntzen kasuan ordea, ingelesa eta frantsesaren kasuan, norbereganatze fluxu orekatu hori puskatu egiten da, batez ere, irakurtzeko gaitasuna, hitz egitekoaren gainetik kokatzen delako.

- Euskaraz gipuzkoarrek oro har hizkuntza trebezia desberdinetarako duten ezagutza mailaren joera orokorra ordea aldatzen ari da. Adin multzoei erreparatuz, zenbat eta gazteago izan, proportzionalki zuzeneko hizkuntza trebezietarako gaitasuna (ulertu eta hitz egin) baxuagoa da eta baita mintzamen edo igorpen hizkuntza trebezietakoa ere (hitz egin eta idatzi).

12. Grafikoa: Euskararen ezagupen maila (oso ongi eta ongi), hizkuntza trebeziei eta adinari jarraiki (%)



Iturria: Siadeco, 2007.

3.2.- EUSKARAREN EZAGUPEN MAILAREN ARABERAKO HIZKUNTZA TIPOLOGIAK

Batetik euskaraz ulertu eta hitz egiteko gaitasuna kontuan izanik, euskaldunak, ia-euskaldunak eta erdaldunak bereizi dira eta bestetik euskaldun eta ia-euskaldunen multzoetarako, alfabetatze mailaren datuak kontuan izanik, euskara maila orokorraren datuetarako eraikitako hizkuntza tipologia ondorengoa da:

8. Taula: euskararen ezagupen eta alfabetatze mailarekiko tipologia

Hizkuntza tipologia	Azalpena
EUSKALDUNAK	**(Oso) ongi ulertu eta hitz egin**
Alfabetatuak	+ (oso) ongi irakurri eta idatzi
Erdizka alfabetatuak	+ zerbait irakurri edota idatzi
Alfabetatugabeak	+ batere ez irakurri, ez idatzi
IA-EUSKALDUNAK	**Zerbait ulertu**
Alfabetatuak	+ Zerbait hitz egin, irakurri eta idatzi
Alfabetatugabeak	+ Zerbait hitz egin, batere idatzi ez
Pasiboak-hartzaileak	+ Batere hitz egin ez
ERDALDUNAK	**Batere ez ulertu, ez hitz egin**

Iturria: Siadeco, 2007.

Inkestaren emaitzetako datuetatik abiatuta, euskara maila orokorra ezagutzeko eraikitako tipologiaren daturik adierazgarrienak ondorengoak dira:

- 15 urtetik gorako gipuzkoarren erdiak euskaldunak dira (%50,6).
- Euskaldunen ehunekoa nabarmen altuagoa da 15-30 urte arteko gazteen artean (%65 euskaldunak) eta baxuagoa 46-60 urte arteko adin multzoan (%42). Batez bestekotik nahiko gertu leudeke beste bi adin multzoak: 31-45 urtekoen artean euskaldunak %49 izanik eta 60 urtez gorakoen artean berriz, %48.
- Lau gipuzkoarretatik ia bat (%24) ia-euskalduna izanik, gazte-helduetan %29 dira ia-euskaldunak eta 61 urtez gorakoen artean %17ra murrizten da ehunekoa.
- Lautik bat pasatxo (%26) batere euskararik ez dakiena da eta gipuzkoar erdaldunen multzo hau gero eta zabalagoa da adinean gora egin ahala, gazteen artean %14, gazte-helduen artean %22, helduen artean %32 eta adinekoen artean %35 izanik.
- Euskarazko irakurmen eta idazmenerako sentitutako gaitasuna edo alfabetatze maila gero eta altuagoa da, gazte euskaldunen artean ia guztiak alfabetatuak dira eta ia-euskaldun kontsideratzen diren gipuzkoar gazteen artean ere alfabetatuen pisua gero eta handiagoa da.



9. Taula: Euskara maila orokorra, alfabetatze maila eta adinari jarraiki (%)

	Gazteak (15-30 urte)	Gazte helduak 31-45 urte)	Helduak (46-60 urte)	Adinekoak (≥61 urte)	GUZTIRA
EUSKALDUNAK	64,9	49,4	41,9	47,6	50,6
Alfabetatuak	62,6	44,1	28,8	23,3	39,4
Erdizka alfabetatuak	2,3	5,2	10,7	21,3	9,8
Alfabetatugabeak	-	0,3	2,5	3,0	1,4
IA-EUSKALDUNAK	21,4	29,0	25,8	17,2	23,7
Alfabetatuak	16,8	16,8	8,2	3,0	11,4
Alfabetatugabeak	1,1	6,3	10,7	8,1	6,7
Pasiboak-Hartzaileak	3,4	5,8	7,1	6,1	5,7
ERDALDUNAK	13,7	21,5	32,0	35,1	25,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2007.

1986-2001 aldiko erroldetako datuen bilakaerari erreparatuz, Gipuzkoak biztanleria galdu du eta euskara maila orokorraren bilakaeraren datuak ondorengoak dira: euskaldunen ehunekoak batez beste urtean puntu erdi egin du gora (zehazki 0,52), ia-euskaldunenak urtean 0,18 puntuko igoera izan du eta erdaldunen multzoak batez beste urtean 0,7 egin du behera.

10. Taula: Bi urte eta gehiagoko biztanleria, euskara maila orokorrari jarraiki, 1986-2001 bilakaera

	1986 urtea		1991 urtea		1996 urtea		2001 urtea	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
EUSKALDUNAK	294.691	43,7	305.403	45,9	330.230	49,7	337.796	51,5
Alfabetatuak	193.299	28,6	212.875	32,0	249.162	37,5	273.989	41,7
Partzialki alfabetatuak	75.425	11,2	69.952	10,5	63.389	9,5	53.423	8,1
Alfabetatugabeak	25.967	3,8	22.576	3,4	17.679	2,7	10.384	1,6
IA-EUSKALDUNAK	114.423	17,0	123.691	18,6	119.217	18,0	129.183	19,7
Alfabetatuak	55.545	8,2	64.581	9,7	62.486	9,4	67.468	10,3
Alfabetatugabeak	35.380	5,2	33.285	5,0	29.411	4,4	30.830	4,7
Pasiboak	23.498	3,5	25.825	3,9	27.320	4,1	30.885	4,7
ERDALDUNAK	265.664	39,4	235.918	35,5	214.467	32,3	189.520	28,9
GUZTIRA	674.778	100,0	665.012	100,0	663.914	100,0	656.499	100,0

Iturria: EUSTAT, Erroldak. 1986,1991,1996 eta 2001

3.3.- ELEBITASUN MOTA, EUSKARA ETA GAZTELANIAREN EZAGUTZARI JARRAIKI

15 urtez gorako Gipuzkoako biztanleriaren elebitasun-mota aztertzeko eraiki eta erabilitako tipologiaren xehetasunak ondorengo koadroan ageri direnak dira:

11. Taula: Euskara eta gaztelaniaren ezagupen mailarekiko eraikitako elebitasun motaren tipologia

Elebitasun motaren araberako tipologia	Definizioa
EUSKALDUN ELEBAKARRAK	Gaztelaniaz "zerbait" edo "batere ez" hitz egin, eta euskaraz "(oso) ongi" hitz egin.
ELEBIDUNAK	Euskaraz nahiz erdaraz "(oso) ongi" hitz egin.
Euskal elebiduna	+ Hitz egiteko garaian, euskaraz erosoago
Elebidun orekatua	+ Hitz egiteko garaian, bi hizkuntzatan berdin
Erdal elebiduna	+ Hitz egiteko garaian, gaztelaniaz/beste hizkuntza batean erosoago
ELEBIDUN HARTZAILEAK	Euskaraz "zerbait" hitz egin. Euskaraz "batere ez" hitz egin eta "(oso) ongi" ulertu. Euskaraz "batere ez" hitz egin eta "(oso) ongi" irakurri.
ERDALDUN ELEBAKARRAK (ingelesa eta frantsesa kontuan izan gabe)	Euskaraz "zerbait" edo "batere ez" ulertu.

Emaitzarik adierazgarrienak berriz ondokoak:

- Euskaldun elebakarren ehuneko orokorra 1,6 izanik, ia guztiak 60 urtez gorakoak dira; adin tarte horretan euskaldun elebakarrak %6 izanik.
- Gipuzkoar elebidunak %49 dira, horietatik %18 euskal elebidunak izanik, %15 elebidun orekatuak eta %16 erdal elebidunak.
- Elebidun hartzailea da bostetik ia bat (%19) eta azkenik erdaldun elebakarrak %31.
- Adinari jarraiki, gazteen artean elebidunen pisua %65era iristen da eta 15-30 adin tarte horretan euskal elebidunak dira gainera %30. Hala ere adierazi, erdal elebidunak biztanleria osoarekiko %16 izanik, gazteen artean erdal elebidunen ehunekoa zerbait altuagoa ere badela (%20). Bestalde guraso izateko adinean dauden 31-45 urte artekoen artean euskal elebidunen ehunekoa nahiko baxua da (%12).

- Erdaldun elebakarren ehunekoak zeharo gora egiten du 46 urtetik gorako gipuzkoarren artean, %38aren gainetik ipiniz.
- Gipuzkoa barnean eskualde desberdinen arteko aldeak ere handiak dira: euskaldun elebakarren ehuneko altuenak, Goierri-Tolosaldea ingurunea eta Urola Kostoak dira (%3 eta 4 artean). Biztanleria elebidunaren ehunekoak altuenetik baxuenera, Urola Kosta (%78), Goierri-Tolosaldea (%63), Debarroa (%57), Donostialdea (%38) eta Bidasoa Beherea (%37) izango lirateke. Elebidun hartzaileen portzentajeak nabarmen gora egiten du Donostialdean (%27) eta erdaldun elebakarrenak ere gora egiten du Bidasoaldea Beherean (%45).



12. Taula: Elebitasun mota, euskara eta gaztelaniaren ezagupen mailaren arabera eta adinari jarraiki (%)

	Gazteak (15-30 urte)	Gazte helduak 31-45 urte)	Helduak (46-60 urte)	Adinekoak (≥61 urte)	GUZ-TIRA
Euskaldun elebakarrak (ingelesa eta frantsesa kontuan izan gabe)	-	-	0,4	6,1	1,6
Elebidunak	64,9	49,4	41,6	41,4	49,0
Euskal elebiduna	29,8	12,4	14,6	18,5	18,2
Elebidun orekatua	15,3	17,7	12,8	12,8	14,8
Erdal elebiduna	19,8	19,3	14,2	10,1	16,0
Elebidun hartzaileak	18,3	23,8	19,9	12,1	18,8
Erdaldun elebakarrak (ingelesa eta Frantsesa kontuan izan gabe)	16,8	26,8	38,1	40,4	30,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2007.



13. Taula: Elebitasun mota, euskara eta gaztelaniaren ezagupen mailaren arabera eta eskualdeari jarraiki (%)

	Bidasoa Beherea	Debarroa	Donosti-aldea	Goierri eta Tolosaldea	Urola Kostladea	GUZ-TIRA
Euskaldun elebakarrak (ingelesa eta frantsesa kontuan izan gabe)	-	0,5	1,3	3,7	2,6	1,5
Elebidunak	36,6	57,4	38,1	62,8	78,4	49,1
Euskal elebiduna	9,9	19,6	10,6	28,3	46,6	18,3
Elebidun orekatua	11,5	17,6	14,5	14,1	15,5	14,8
Erdal elebiduna	15,3	20,1	13,1	20,4	16,4	16,0
Elebidun hartzaileak	18,3	11,3	26,6	11,5	6,9	18,8
Erdaldun elebakarrak (ingelesa eta Frantsesa kontuan izan gabe)	45,0	30,9	34,0	22,0	12,1	30,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2007.

Elebitasun-mota eta lehen hizkuntzaren artean lotura zuzena dagoela ere erakusten dute datuek:

- Lehen hizkuntza euskara dutenen artean, %88 elebidunak dira, %43 euskal elebidunak, %27 elebidun orekatuak eta %19 erdal elebidunak.
- Lehen hizkuntza gisa biak dituztenen artean, %84 dira elebidunak, %16,5 euskal elebidunak, %41 elebidun orekatuak eta %27 erdal elebidunak.
- Lehen hizkuntza gaztelania dutenen erdia baino gehiago (%51) erdaldun elebakarrak dira eta %29 elebidun hartzaileak.



3.4.- ELEANIZTASUN MAILA

Gipuzkoar biztanleriaren eleaniztasun-maila zenbatekoa den jakiteko kontuan hartu diren hizkuntzak euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa izan dira eta eraikitako tipologiak bi faktore hartzen ditu kontuan: zenbat diren ezagutzen diren hizkuntzak eta zein diren hizkuntza horiek. Datu nagusienak ondokoak dira:

- 15 urtez gorako 10 gipuzkoarretatik 4 (%40) elebakarrak dira, gehienak (%38) erdaldun elebakarrak. Adinari jarraiki aldeak nabarmenak dira, gazteen artean bostetik bat baita elebakarra eta 60 urtez gorakoetan berriz erdia baino gehiago badira elebakarrak.
- Biztanleriaren %42,8 elebiduna da: %34k euskara eta gaztelania dakite, %4k gaztelania eta ingelesa eta beste %4k gaztelania eta frantsesa.
- Biztanleriaren %16 hirueleduna da: euskara, gaztelania eta ingelesarekin %11; euskara, gaztelania eta Frantsesarekin %2 eta gaztelania, ingelesa eta Frantsesarekin beste %2 inguru. Adin multzoen arteko aldeak ikaragarri altuak dira, 15-30 urte arteko 3 gaztetatik 1 hirueleduna baita eta 60 urtez gorakoetan %5etik ez baita pasatzen portzentaia hori.
- Euskara, gaztelania, Frantsesa eta ingelesa dakizkiten 15 urtez gorako gipuzkoar lauledunak %2 eskas dira, 15-30 urte arteko gazteen artean berriz %3.
- Eskualdearen araberako datuetan frantsesa dakiten elebidun eta hirueledunen ehunekoak altuagoak dira Bidasoa Beherean.



14. Taula: Eleaniztasun maila eta mota, adinari jarraiki (%)

	Gazteak (15-30 urte)	Gazte helduak 31-45 urte)	Helduak (46-60 urte)	Adinekoak (≥61 urte)	GUZTIRA
Elebakarrak	**21,4**	**36,5**	**50,0**	**50,7**	**39,8**
Euskara	-	-	0,4	6,1	1,6
Gaztelania	21,0	36,2	49,6	44,6	38,1
Ingelesa	0,4	0,3	-	-	0,2
Frantsesa	0,0	0,0	-	-	-
Elebidunak	**41,2**	**45,0**	**41,8**	**42,6**	**42,8**
Euskara eta gaztelania	29,4	34,8	35,0	37,2	34,3
Euskara eta ingelesa	-	-	-	-	-
Euskara eta Frantsesa	-	-	-	-	-
Gaztelania eta ingelesa	10,3	5,5	2,1	-	4,4
Gaztelania eta Frantsesa	1,5	4,7	4,6	5,4	4,2
Hirueledunak	**34,4**	**17,1**	**7,1**	**5,4**	**15,7**
Euskara, gaztelania eta ingelesa	31,7	12,2	1,1	1,0	11,1
Euskara, gaztelania eta Frantsesa	1,1	1,4	4,6	2,0	2,3
Gaztelania, ingelesa eta Frantsesa	1,5	3,6	1,4	2,4	2,3
Euskara, ingelesa eta Frantsesa	-	-	-	-	-
Laueledunak (euskara, gaztelania, ingelesa eta Frantsesa)	**3,1**	**1,4**	**1,1**	**1,4**	**1,7**
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2007.

Lehen hizkuntza edo ama hizkuntza euskara duten (soilik edo gaztelaniarekin batera) gipuzkoarren eleaniztasun maila altuagoa da:

- Lehen hizkuntza gaztelania duten gipuzkoarren %64 elebakarrak dira eta aldiz %10 baino ez dira elebakarrak lehen hizkuntza euskara dutenen artean eta lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituztenen artean.
- Lehen hizkuntza euskara dutenen %66 elebiduna da eta %22 hirueleduna.
- Lehen hizkuntza gisa biak jaso dituztenen %49 da elebiduna eta %35 berriz hirueleduna.



15. Taula: Eleaniztasun maila eta mota, lehen hizkuntzari jarraiki (%)

	Lehen hizkuntza EUSKARA	Lehen hizkuntza GAZTE-LANIA	Lehen hizkuntza BIAK (euskara eta gaztelania)	Lehen hizkuntza BESTE hizkuntza bat	GUZ-TIRA
Elebakarrak	**10,0**	**63,7**	**10,1**	**63,8**	**39,7**
Euskara	3,8	0,3	-	-	1,5
Gaztelania	6,2	63,2	10,1	61,7	38,1
Ingelesa	-	0,2	-	2,1	0,1
Frantsesa	-	0,0	-	-	-
Elebidunak	**65,6**	**27,5**	**49,4**	**14,9**	**43,0**
Euskara eta gaztelania	64,3	13,6	46,8	-	34,4
Euskara eta ingelesa	-	-	-	-	-
Euskara eta frantsesa	-	-	-	-	-
Gaztelania eta ingelesa	-	7,8	1,3	6,4	4,4
Gaztelania eta frantsesa	1,3	6,1	1,3	8,5	4,2
Hirueledunak	**21,7**	**8,4**	**35,4**	**19,1**	**15,6**
Euskara, gaztelania eta ingelesa	17,3	5,0	27,8	2,1	11,0
Euskara, gaztelania eta frantsesa	4,2	0,6	5,1	0,0	2,3
Gaztelania, ingelesa eta frantsesa	0,2	2,7	2,5	17,0	2,3
Euskara, ingelesa eta frantsesa	-	-	-	-	-
Laueledunak (euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa)	**2,7**	**0,5**	**5,1**	**2,1**	**1,7**
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2007.

3.5.- HIZKUNTZA GAITASUN ALDERATUA

Euskara oso ongi, ongi edo zerbait hitz egiteko gai direnei (biztanleriaren %69), hizkuntza batean edo bestean, zein hizkuntzatan erosoago sentitu eta hobeto komunikatzen diren galdetu zaie. Datu orokorrei erreparatuz, 10 elebidunetatik ia 4 (%39) hitz egiterakoan euskaraz erosoago moldatzen da, 10etik 3 (%31) gaztelaniaz erosoago eta beste 3 (%29) bi hizkuntzetan berdin. Ikasitako lehendabiziko hizkuntza eta hizkuntza gaitasun alderatuaren artean lotura estua dagoela ikusten da, bereziki zuzeneko hizkuntza trebezietan (ulertu eta hitz egin): gaztelaniaz euskaraz baino hobeto ulertzen dutenak %65 dira lehen hizkuntza gaztelania izan duten elebidunen artean eta aldiz %24 lehen hizkuntza euskara izan dutenen artean. Hitz egiterakoan berriz, ama hizkuntza gaztelania izan duten 3 elebidunetatik 2k (%67) gaztelaniaz komunikazio gaitasun handiagoa dute eta lehen hizkuntza euskara izan dutenen erdiek (%50) euskaraz hobeto komunikatzen dute eta beste %29k berriz bi hizkuntzetan gaitasun bera dute hitz egiterakoan.

Irakurtzerako garaian, elebidunen erdiek (%50) gaztelaniaz hobeto moldatzen direla erantzun dute, laurden batek bietan berdin (%26) eta %23k euskaraz erosoago. Idazterakoan euskararen datuak zertxobait hobeak dira, bereziki gazteenen gaitasunak eraginda: idazterakoan, gaztelaniaz erosoago %43, euskaraz erosoago %28 eta bietan berdin %27.

Gaitasunaren arabera elebitasun maila orekatua, alegia bi hizkuntzetan ulertu eta hitz egiteko gaitasun berbera izatea, maila altuenean lehen hizkuntzak biak dituztenen artean gertatzen da, ondoren lehen hizkuntza euskara dutenen artean eta azkenik diferentzia handiarekin lehen hizkuntza gaztelania bakarrik dutenen kasuan.

19. Grafikoa: Biztanleria elebidunaren euskara eta gaztelaniaren arteko hizkuntza gaitasun alderatua hizkuntza trebezia desberdinetan (%)



Iturria: Siadeco, 2007.

16. Taula: Biztanleria elebidunaren euskara eta gaztelaniaren arteko hizkuntza gaitasun alderatua hizkuntza trebezia desberdinetan, lehen hizkuntzari jarraiki (%)

		Lehen hizkuntza EUSKARA	Lehen hizkuntza GAZTELA-NIA	Lehen hizkuntza BIAK (euskara eta gaztelania)	Lehen hizkuntza BESTE hizkuntza bat	GUZTIRA
Ulertu	Euskaraz erosoago	40,0	10,0	15,3	-	28,3
	Gaztelaniaz erosoago	23,9	65,0	30,6	75,0	37,2
	Bietan berdin	34,0	18,6	54,2	-	31,2
	Beste hizkuntza batean	1,4	0,5	-	-	1,0
Hitz egin	Euskaraz erosoago	49,5	13,1	19,7	-	38,8
	Gaztelaniaz erosoago	20,0	67,2	31,8	100,0	31,0
	Bietan berdin	29,3	18,0	48,5	-	29,0
	Beste hizkuntza batean	1,0	0,8	-	-	0,8
Irakurri	Euskaraz erosoago	30,7	6,4	13,8	-	22,7
	Gaztelaniaz erosoago	42,8	71,4	41,5	100,0	49,9
	Bietan berdin	25,1	19,3	44,6	-	25,8
	Beste hizkuntza batean	0,8	0,7	0,0	-	0,7
Idatzi	Euskaraz erosoago	36,8	9,3	18,2	-	28,1
	Gaztelaniaz erosoago	35,3	68,6	30,9	100,0	43,0
	Bietan berdin	26,3	18,6	50,9	-	27,1
	Beste hizkuntza batean	0,9	0,8	-	-	0,8

Iturria: Siadeco, 2007.

3.6.- HIZTUN TALDE DESBERDINEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza gaitasunaren baitan definitutako "euskaldunak" , "elebidun hartzaileak" eta "erdaldun elebakarrak" hiru multzoetako bakoitzaren bereizitasun soziodemografikoak ondorengoak izango lirateke:

17. Taula: Hiztun talde desberdien ezaugarri soziodemografikoak

Ezaugarri soziodemo-grafikoak	Euskaldunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
Adina	Biztanleria gazteagoa da, eta bereziki 15 eta 30 urte artekoen pisua handiagoa da.	Biztanleria gaztea da baita ere baina bereziki gazte-helduen multzokoek dute pisurik handiena.	Heldu eta bereziki adinekoek dute pisurik gehien, batez besteko adina 51,8 urte izanik.
Sexua	Erdi eta erdi banatuak daude emakumezko eta gizonezkoen artean.	Emakumezkoen pisua zerbait altuagoa da.	Gizonezkoak apur bat gehiago dira emakumezkoak baino.
Eskualdea	3tik 1 Donostialdekoa da, %20 inguru Goierri eta Tolosaldekoak eta beste horrenbeste Debarrokoak	3tik 2 Donostialdekoak dira	Erdiak Donostialdekoak dira, %17 Debarrokoak eta %16 Bidasoa Beherekoak.
Familia-mota	Datu orokorrekiko ez dago alde nabarmenik	Seme-alabadun familia edo bikoteen pisua handiagoa da (3tik 2).	Datu orokorrekiko ez dago alde nabarmenik
Jaioterria	Udalerri berean jaiotakoen pisua handiagoa da (%66).	Udalerri berean jaiotakoak %56 dira	Bizi diren udalerriz kanpo jaiotakoak dira gehienak (%65).
Bukaturiko ikasketak	Goi mailako unibertsitate ikasketak dituztenak gehiago dira, biztanleria osoarekiko alderatuta.	Goi mailako unibertsitate ikasketadunak eta erdi mailakoak dituztenak ere gehiago dira.	Erdiek baino gehiagok oinarrizko ikasketak edo baxuagoak dituzte.
Lan egoera	Kooperatibista eta ikasleen pisua handiagoa da.	Besteren kontura lan egiten duten langileek pisu gehiago dute.	Erretiroa hartutakoak eta etxeko lanetan ari direnak nabarmen gehiago dira multzo honetan.
Lan sektorea	Lehen sektorean lan egiten dutenen pisua zerbait handiagoa bada ere, lan sektorearekiko biztanleriaren banaketa orokorrarekiko ez dago alde handirik.	Merkataritza eta ostalaritza establezimenduez aparteko bestelako zerbitzuetan (aholkularitzak, aseguruak, finantzak, administrazioa…) lan egiten dutenen presentzia altuagoa da.	Langile aktiboak ez direnen pisua nabarmen altuagoa da.
Kategoria sozioprofe-sionala	Administrazio publikoko funtzionario edota enplegatuen pisua handiagoa da	Koadro ertain, teknikari eta goi kargudunek pisu gehiago dute	Lanean ari ez direnen pisua handiagoa da.

Iturria: Siadeco, 2007.

18. Taula: Biztanleria elebidunaren euskara eta gaztelaniaren arteko hizkuntza gaitasun alderatua hizkuntza trebezia desberdinetan, lehen hizkuntzari jarraiki (%) (I)

Erdaldun elebakarrak (ingelesa eta Frantsesa kontuan izan gabe)	**43,6**	**94,4**	**64,5**	**70,9**	**55,3**	**63,2**	**71,0**	**81,7**	**42,3**	**73,7**	
GUZTIRA	46,6	95,4	71,4	82,2	43,0	81,5	84,9	64,0	43,8	64,6	

Iturria: Siadeco, 2007.

Gainerako ezaugarri soziodemografiko eta soziolaboralei dagokienean diferentziarik adierazgarrienak, honakoak:

- Euskara hizkuntza modernoagoa da, gizonezkoentzat eta Espainiaz kanpo jaiotakoentzat. Modernotik gutxiago du berriz, enpresari eta negozio jabeentzat.
- Prestigio gehiago du gizonezkoentzat.
- Hizkuntza praktikoagoa da administrazio publikoan lan egiten dutenentzat.
- Inposatu nahi den hizkuntza gisa gehiago ikusten dute merkataritza sektorean lan egiten dutenek.
- Administrazio publikoko enplegatuentzat beharrezkoagoa da.
- Erdi-goi mailako ikasketak dituztenentzat hizkuntza politizatuagoa da.

31. Taula: Euskararen irudi-atributuen araberako tipologiaren ezaugarri soziodemografikoak (%) (I)

Ezaugarriak		Hizkuntza MODERNOA (oso ados edo nahikoa ados)	Gipuzkoan ETORKIZUNEKO hizkuntza	PRESTIGIOA duen hizkuntza	Hizkuntza PRAKTIKOA	INPOSATU nahi den hizkuntza	Hizkuntza ERAKARGARRIA	BEHARREZKO hizkuntza	IKASTEKO ZAILA den hizkuntza	Hizkuntza POLITIZATUA	PROMOZIONATUA dagoen hizkuntza
Sexua	Emakumezkoak	43,8	95,5	68,8	82,6	43,3	81,0	85,7	65,2	40,4	64,0
	Gizonezkoak	49,3	95,3	73,9	81,9	42,7	81,9	84,1	62,8	47,3	65,1
Jaioterria	Bizilekua bera	46,6	97,2	71,8	83,8	40,9	83,9	86,8	61,8	45,6	62,8
	Eskualdeko beste herri bat	45,2	91,5	68,7	79,5	36,3	91,7	90,0	54,9	33,7	63,7
	Gipuzkoako beste eskualde batean	52,9	94,5	74,4	84,3	41,9	81,5	85,9	61,3	48,4	67,1
	Euskal Herria	35,4	98,8	75,5	89,1	53,1	86,3	85,1	61,5	41,6	65,5
	Espainia	42,5	90,7	65,3	76,4	49,8	71,1	77,7	78,1	38,2	66,5
	Espainiaz kanpo	53,2	93,0	72,0	66,0	50,3	55,0	68,4	76,0	41,1	71,6
Bukaturiko ikasketak	Oinarrizkoak baino baxuagoak	47,4	94,9	63,9	85,5	30,1	78,1	83,2	43,9	23,4	59,5
	Oinarrizkoak	50,6	94,2	72,9	83,8	39,9	80,5	85,9	60,0	36,2	60,6
	Lanbide heziketa	46,5	98,2	72,8	83,3	47,3	84,6	88,5	72,9	39,1	66,4
	Goi mailako batxilergoa	35,3	96,2	74,3	78,5	42,2	82,3	81,9	60,3	57,5	63,6
	Erdi mailako unibertsitate ikasketak	44,5	94,1	69,5	74,5	51,2	79,7	80,7	70,5	54,9	70,3
	Goi mailako unibertsitate ikasketak	48,4	95,8	67,6	83,1	43,7	82,2	83,2	68,6	59,8	69,7
Lan egoera	Langilea, besteren kontura	46,7	95,9	71,3	82,0	46,7	82,6	84,9	68,2	48,4	65,4
	Langilea, norbere kontura	44,6	92,4	71,1	72,4	41,0	85,3	88,1	70,0	51,2	73,2
	Kooperatibista	35,4	100,0	86,3	94,1	41,3	100,0	76,4	43,2	41,3	66,8
	Langabea	49,3	93,0	62,1	72,2	45,0	71,5	66,5	67,6	45,2	69,7
	Erretiratua	47,4	94,7	71,1	83,6	38,1	81,2	83,8	56,7	31,4	60,8
	Etxeko lanak	47,7	96,3	69,8	82,7	47,9	74,0	87,9	73,3	37,7	67,0
	Ikaslea	45,3	96,6	74,0	90,0	34,8	82,3	86,3	50,0	49,8	58,1
	Besterik		100,0	100,0	100,0	-	-	100,0	-	-	-

Iturria: Siadeco, 2007.

31. Taula: Euskararen irudi-atributuen araberako tipologiaren ezaugarri soziodemografikoak (%) (II)

Ezaugarriak		Hizkuntza MODERNOA (oso ados edo nahikoa ados)	Gipuzkoan ETORKIZU-NEKO hizkuntza	PRESTIGIOA duen hizkuntza	Hizkuntza PRAKTIKOA	INPOSATU nahi den hizkuntza	Hizkuntza ERAKARGA-RRIA	BEHARREZ-KO hizkuntza	IKASTEKO ZAILA den hizkuntza	Hizkuntza POLITIZA-TUA	PROMOZIO-NATUA dagoen hizkuntza
Lan sektorea	Nekazaritza-arrantza	69,5	86,4	77,3	100,0	45,5	92,2	100,0	31,9	26,6	65,7
	Industria-eraikuntza	47,8	96,0	73,8	78,6	45,8	84,4	83,3	63,2	46,8	68,0
	Merkataritza	48,3	95,9	74,4	77,7	57,5	75,8	80,8	69,8	61,9	63,1
	Ostalaritza	33,5	85,9	48,7	81,2	26,8	87,3	76,9	57,5	23,1	45,6
	Bestelako zerbitzu publiko nahiz pribatuak	46,0	97,0	72,5	81,5	45,0	85,6	89,1	76,4	52,7	71,8
	Besterik	39,9	90,0	64,8	82,0	40,6	76,2	82,2	59,0	39,0	55,3
	Lanean ari ez direnak	47,0	95,4	71,2	84,4	39,8	79,2	84,4	59,0	37,9	61,9
Kategoria soziopro-fesionala	Enpresaria edo negozio jabea	41,7	90,1	72,1	70,1	45,9	83,4	85,8	61,7	44,4	65,8
	Goi karguduna	51,4	95,3	79,4	70,3	49,0	81,6	84,8	65,4	73,9	77,9
	Koadro ertaina, teknikaria	52,9	96,7	74,0	84,3	47,8	83,0	86,4	75,2	57,3	68,1
	Enplegatua, langilea	44,4	95,5	68,7	81,2	44,0	82,8	83,9	68,5	43,6	63,8
	Administrazio publikoko funtzionarioa edo enplegatua	42,6	96,1	74,5	86,2	43,3	92,2	93,5	61,4	52,6	71,3
	Besterik	44,3	95,8	66,8	80,8	49,7	76,6	81,5	62,7	29,5	70,4
	Lanean ari ez direnak	47,2	95,4	71,3	84,3	40,0	79,4	84,3	59,2	38,0	62,0
GUZTIRA		46,6	95,4	71,4	82,2	43,0	81,5	84,9	64,0	43,8	64,6

Iturria: Siadeco, 2007.

7.-

HIZKUNTZENGATIKO BEHAR ETA INTERES PERTSONALA

7.1.- EGUNEROKO BIZITZARAKO BEHARRA

Beren eguneroko bizimoduan, aztergai ditugun lau hizkuntzok zenbateraino iruditzen zaizkien beharrezkoak galdetuta, esan Gipuzkoako populazioaren %78,3ari gaztelania oso beharrezkoa egiten zaiola, eta euskara %51,2ri. Beren eguneroko bizimoduan ingelesa oso beharrezkotzat jotzen dutenak %10aren inguruan kokatzen dira, eta frantsesa jotzen dutenak ez dira %3ra iristen.

Hizkuntza hauek oso eta nahikoa beharrezkotzat jotzen dituztenak kontuan hartuta, esan 15 urte edo gehiagoko gipuzkoar ia guztiek jotzen dutela beharrezkoa (oso edo nahikoa) gaztelania beren eguneroko bizimoduan (%96,5ek, zehazki); eta 4tik 3k aldiz, euskara. Ingelesa beharrezkotzat jotzen dute 10etik 3k, eta frantsesa, 10etik 1ek.

40. Grafikoa: Zenbateraino iruditzen zaizkizu beharrezkoak euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa zure eguneroko bizimoduan? (%)



Iturria: Siadeco, 2007.

Beren eguneroko bizimoduan, gaztelania beharrezkotzat jotzen duten gipuzkoarren ehunekoa oso altua bada ere (%94tik gorakoa adin-multzo guztietan), batez bestekoa baino zertxobait altuagoa da herritar gazte edo gazte helduen artean (%97,3 eta %99,2 hurrenez hurren), 45 urtetik gorakoetan baino.

Bestalde, euskara beharrezkotzat jotzen dutenen ehunekoak gora egiten du adinean behera egin ahala; honela, "adinekoetan" euskara beharrezkotzat dutela diotenak %68,2 badira, "gazteen" artean ia %83k diote beren eguneroko bizimoduan euskara beharrezkoa gertatzen zaiela.

Ingelesarekin, ikusi berri dugun joera errepikatu egiten da, baina adinaren araberako aldeak askoz ere nabarmenagoak dira. Izan ere, "adinekoen" %11,5ek diote ingelesa beharrezkoa dutela beren eguneroko bizimoduan; "gazteen" artean, aldiz, ia erdiek (%48,9).

Frantsesa beharrezkotzat dutenak nabarmen gutxiago dira, aurretiaz esan bezala, eta adin-multzoaren araberako aldeak ere baxuagoak (2 puntuko aldea besterik ez dago bi muturren artean).

Oro har, beraz, eta eguneroko bizimoduan, lau hizkuntzekiko pertzibitutako "behar-mailan" aldeak handiak badira ere, gipuzkoarren adinak behera egin ahala, "behar-maila" horrek gora egiten duela ikus daiteke; hizkuntza desberdinekiko beharrik handiena "gazteenek" pertzibitzen dutela, alegia.

32. Taula: Hizkuntzok bere eguneroko bizimoduan oso edo nahikoa beharrezkoak jotzen dituztenak, adinaren arabera (%)

Hizkuntza	Gazteak (15-30 urte)	Gazte helduak (31-45 urte)	Helduak (46-60 urte)	Adinekoak (≥61 urte)	GUZTIRA
Euskara	82,8	76,9	72,1	68,2	74,9
Gaztelania	97,3	99,2	94,3	94,6	96,5
Ingelesa	48,9	37,3	27,5	11,5	31,2
Frantsesa	10,7	11,0	9,3	8,8	10,0

Iturria: Siadeco, 2007.



Urola Kostaldean, beren eguneroko bizimoduan euskara beharrezkotzat jotzen duten herritarren ehunekoa (%91,5), gaztelania jotzen dutenena baino zertxobait altuagoa da (%89,0). Gainerako eskualdeetan, Gipuzkoako guztirako datuetan bezala, gehiago dira gaztelania beharrezkotzat jotzen dutenak, euskara jotzen dutenak baino.

Euskara beren eguneroko bizimoduan beharrezkotzat jotzen dutenen ehunekoetan aldeak adierazgarriak dira; eta lehen aipatu dugun Urola Kostako ehunekoaren ondoren, Goierri/Tolosaldea (%80,1) eta Debarroa (%76,5) datoz, Donostialdea ondoren (%73,7), eta dezentez beherago (%59,5), Bidasoa Beherea.

Ingelesa beharrezkotzat jotzen dutenen ehunekoa batez bestekoa baino altuagoa da Bidasoa Beherean eta Donostialdean (ia %36); eta frantsesa jotzen dutenak aldiz %26,5ean kokatzen dira Bidasoa Beherean, (batez bestekoa %10ekoa den artean).

33. Taula: Hizkuntzok bere eguneroko bizimoduan oso edo nahikoa beharrezkoak jotzen dituztenak, eskualdearen arabera (%)

Hizkuntza	Bidasoa Beherea	Debarroa	Donostial-dea	Goierri eta Tolosaldea	Urola Kostaldea	GUZTIRA
Euskara	59,5	76,5	72,7	80,1	91,5	74,9
Gaztelania	99,2	96,6	98,0	94,8	89,0	96,5
Ingelesa	35,9	27,9	35,8	21,1	26,3	31,2
Frantsesa	26,5	5,9	10,1	5,8	5,9	10,1

Iturria: Siadeco, 2007.



Euskal elebidun eta euskaldun elebakarren artean, eguneroko bizimoduan euskara beharrezkotzat jotzen duten herritarren ehunekoa (%98,7), gaztelania jotzen dutenena baino 11 puntu altuagoa da (%87,4). Gainerako elebitasun motetan, Gipuzkoako datu orokorretan bezala, gehiago dira gaztelania beharrezkotzat jotzen dutenak, euskara jotzen dutenak baino.

Grafikoan ikus daitekeen bezala gainera, bi hizkuntza hauek beharrezkotzat jotzen dituztenen arteko aldea handiagoa da erantzulearen euskara ezagutzak behera egin ahala; izan ere, gaztelania beharrezkotzat jotzen dutenen ehunekoetan aldeak txikiak dira, eta diferentzia euskara beharrezkotzat jotzen dutenen portzentajeak eragiten du.

Adierazgarria da halere, 4 elebidun hartzaileetatik ia 3k, edota 10 erdaldun elebakarretatik ia 4k, euskara bere eguneroko bizimoduan beharrezkoa gertatzen zaiela erantzutea.

34. Taula: Hizkuntzok bere eguneroko bizimoduan oso edo nahikoa beharrezkoak jotzen dituztenak, elebitasun motaren arabera (%)

Hizkuntza	ELEBIDUNAK			ELEBIDUN HARTZAI-LEAK	ERDALDUN ELEBAKA-RRAK	GUZTIRA
	Eusk elebakarra + EUSKAL elebiduna	Elebidun OREKATUA	ERDAL elebiduna			
Euskara	98,7	99,4	92,7	73,8	39,2	75,0
Gaztelania	87,4	100,0	97,4	98,7	98,6	96,4
Ingelesa	30,1	40,9	27,0	40,9	27,0	31,3
Frantsesa	8,0	8,5	6,2	11,6	13,1	10,0

Iturria: Siadeco, 2007.

43. Grafikoa: Hizkuntzok eguneroko bizimodurako oso edo nahiko beharrezko jotzen dituztenak, elebitasun motari jarraiki (%)



Iturria: Siadeco, 2007.

Euskaraz oso ongi, ongi edo zerbait hitz egiteko gai zirela erantzun dutenei, beraientzat zein egoeratan edo zein pertsonarekin den euskara erabiltzea praktikoagoa edo eraginkorragoa galdetu zitzaien modu irekian. Hirutik batek baino zertxobait gehiagok (%36,7k), "familiakoekin, senideekin, seme-alabekin, …." erantzun du. %17k, "noiznahi, edozein egoera edota pertsonarekin, beti…" gertatzen zaiola praktikoagoa edo eraginkorragoa euskaraz egitea; %14,5ek "lantokian, ikastetxean…" erantzun dute, eta %12,4k "lagunekin, koadrilakoekin,…".

"Familiakoekin, senideekin" euskaraz egitea praktikoagoa edo eraginkorragoa gertatzen zaiela erantzun dutenen artean, 31-45 urte bitartekoak (%51,1), erdal elebidunak (%46,4) eta emakumezkoak (%42,6) azpimarratu behar dira.

"Noiznahi" erantzun dutenen artean aldiz, euskal elebidunak eta elebakar euskaldunak (%37,5), Urola Kostako herritarrak (%34,3), lehen hizkuntza euskara izan dutenak (%26,7), 61 urtetik gorakoak (%23,7) eta gizonezkoak (%19,0).

"Lantoki/ikastetxean" euskaraz egitea praktiko edo eraginkorragoa egiten zaiela diotenen artean aldiz, elebidun hartzaileak (%24,1), 15-30 urte bitarteko gazteak (%22,9), lehen hizkuntza gaztelania izan dutenak (%21,7) eta gizonezkoak (%16,1).

Eta "lagunekin" egiten zaiela diotenen artean, azpimarratu15-30 urte bitarteko gazteak (%25,7), elebidun orekatuak (%21,5), lehen hizkuntza euskara eta gaztelania izan dutenak (%19,7) eta gizonezkoak (%15,6).

35. Taula: Euskara erabiltzea praktikoagoa edo eraginkorragoa gertatzen dela adierazitako eremu edo harreman motak, sexua, adina eta eskualdeari jarraiki (%)
(euskaraz (oso) ongi+zerbait hitz egiten dutenen artean)

	SEXUA		ADINA				ESKUALDEA					GUZ-TIRA
	Gizonez-koa	Emaku-mezkoa	15-30 urte	31-45 urte	46-60 urte	61 edo gehiago	Bidasoa Beherea	Debarroa	Donostial-dea	Goierri+ Tolosaldea	Urola Kostaldea	
Familia, senideekin	30,8	42,6	16,5	51,1	39,1	37,6	38,0	40,0	34,6	37,2	38,2	36,7
Noiznahi	19,0	15,4	17,0	11,7	19,5	23,7	19,7	15,7	12,4	17,9	34,3	17,3
Lantokian/ikastetxean	16,1	12,7	22,9	13,6	17,8	2,3	14,1	12,9	20,1	9,0	4,9	14,5
Lagunekin	15,6	9,1	25,7	7,6	4,7	9,8	14,1	10,7	12,9	12,4	11,8	12,4
Ingurune hurbilean, kalean	4,6	3,4	4,1	3,4	6,5	2,3	2,8	8,6	1,9	4,8	4,9	4,0
Merkataritza harremanetan	1,4	2,5	1,8	1,9	1,2	2,9	1,4	2,1	2,7	1,4		1,9
Inoiz ez	1,4	2,5	0,9	2,3	3,6	1,2	1,4	1,4	1,9	2,1	1,0	1,7
Besterik	0,7	1,2	0,5	1,5	0,6	1,2			1,1	2,1	1,0	1,0
Ed/Ee	10,3	10,5	10,6	6,8	7,1	19,1	8,5	8,6	12,4	13,1	3,9	10,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2007.

36. Taula: Euskara erabiltzea praktikoagoa edo eraginkorragoa gertatzen dela adierazitako eremu edo harreman motak, lehen hizkuntza eta elebitasun motari jarraiki (%)
(euskaraz (oso) ongi + zerbait egiten dutenen artean)

	LEHEN HIZKUNTZA				ELEBITASUN MOTA				GUZ-TIRA
	Gaztelania	Euskara	Euskara+ Gaztelania	Besterik	Elebak eusk + eusk elebi	Elebidun orekatuak	Erdal elebidunak	Elebidun hartzaileak	
Familia, senideekin	34,7	36,5	40,8	63,6	31,7	35,6	46,4	34,3	36,7
Noiznahi	5,3	26,7	11,8	9,1	37,5	18,6	6,8	2,8	17,2
Lantokian/ikastetxean	21,7	8,9	17,1	18,2	6,3	10,7	17,2	24,1	14,4
Lagunekin	10,7	12,6	19,7	-	12,1	21,5	9,9	7,4	12,3
Ingurune hurbilean, kalean	3,0	5,0	1,3	-	6,7	3,4	3,6	2,3	4,1
Merkataritza harremanetan	4,0	0,9	-	-	-	0,6	0,5	6,5	1,9
Inoiz ez	4,7	0,2	1,3	-	0,8	0,6	1,0	4,6	1,8
Besterik	1,0	0,7	2,6	-	0,8	1,7	1,0	0,5	1,0
Ed/Ee	15,0	8,4	5,3	9,1	4,2	7,3	13,5	17,6	10,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2007.

7.2.- INTERES PERTSONALAREN BILAKAERA

Hizkuntzekiko interes pertsonalaren bilakaera ezagutu asmoz, aztergai ditugun 4 hizkuntza hauekiko, egun, orain 5 urte zutena baino interes handiagoa, iguala ala txikiagoa ote duten galdetu zaie inkestatuei.

Hamarretik ia 4k, gaur egun euskararekiko duten interesa duela bost urte zutena baino askoz ere handiagoa (%14.4) edo dezente handiagoa (%25.4) dela diote; ingelesari dagokionez, 4tik 1ek pasatxok erantzuten du hori (%28,6); gaztelaniaren kasuan 10etik 1ek pasatxok (%12,5) eta frantsesaren kasuan 10etik 1ek (%10,4).

Azken 5 urteetan hizkuntza hauekiko interesa galdu egin dutela diote aldiz 10etik 1ek frantsesaren kasuan (%11,9), eta %6k ingelesaren kasuan. Euskararen eta gaztelaniaren kasuan, interesa galdu dutela diotenak %2,5aren inguruan kokatzen dira.

44. Grafikoa: Ondorengo hizkuntza bakoitzarekiko egun duzun interesa, orain 5 urte zenuena baino askoz handiagoa da, dezente handiagoa, iguala, dezente baxuagoa ala askoz baxuagoa? (%)



Iturria: Siadeco, 2007.

Elebitasun-motari jarraiki, azken 5 urteetan euskararekiko interes mailak gora egindako kasuak proportzionalki gehiago dira erdal elebidun (%51,3) eta elebidun hartzaileen (%53,6) multzoan, eta gauza bera gertatzen da ingelesarekiko (%37,3 eta %35,3 hurrenez hurren) eta frantsesarekiko ere (%13,0 eta %10,7).

Nolabait ere, oro har, hizkuntzekiko egun duten interes maila, orain 5 urte zutena baino altuagoa duten hiztun taldeak dira, bai erdal elebidunena eta baita elebidun hartzaileena ere.

37. Taula: Hizkuntzekiko interes mailaren bilakaera (orain bost urte baino interes handiagoa edo dezente handiagoa dutenak), hizkuntzari eta elebitasun-motari jarraiki (%)

Hizkuntza	ELEBIDUNAK			ELEBIDUN HARTZAI-LEAK	ERDALDUN ELEBAKA-RRAK	GUZTIRA
	Eusk elebakarra + EUSKAL elebiduna	Elebidun OREKATUA	ERDAL elebiduna			
Euskara	29,4	30,5	51,3	53,6	35,4	39,4
Gaztelania	13,1	11,3	13,0	9,3	14,7	12,6
Ingelesa	27,7	29,4	37,3	35,3	20,4	28,7
Frantsesa	9,2	9,0	13,0	10,7	10,1	10,3

Iturria: Siadeco, 2007.



8.-

HIZKUNTZEN IKASKETA

8.1.- HIZKUNTZEN IKASKETA

Eskolaz kanpoko klaseetan gipuzkoar gehien bildu dituen hizkuntza ingelesa izan da; zehazki, herritarren %29 aritu da inoiz ala gaur egun ari da ingelesa ikasten eskola orduz kanpo (akademiatan): %25,7 lehen, eta %3,3 gaur egun.

Euskarari dagokionez, %20,8 aritu dira inoiz (%19,6) ala gaur egun ari dira (%1,2) eskolaz kanpo ikasten. Frantsesaren kasuan, %12,8koa da inoiz ikasi duela, ala egun ikasten ari dela diotenen ehunekoa.

46. Grafikoa: Eskolaz kanpo inoiz aritu al zara ala gaur egun ari al zara frantsesa, ingelesa, euskara, gaztelania edo beste hizkuntzaren bat ikasten? (%)



Iturria: Siadeco, 2007.

8.2.- HELBURUEN LORPENA

Hizkuntza hauetako bat eskolaz kanpo ikasten inoiz aritu direnei edo gaur egun ari direnei, ikasten hasi zirenean espero zutena baino gehiago, berdin ala gutxiago ikasi ote duten galdetu zaie, eta erdiek gutxi gorabehera, espero zutena ikasi zuela erantzun dute.

Hasi zirenean espero baino gehiago ikasi zutela diote ingelesa ikasten jardun zirenen %20,3, frantsesa ikasten aritu zirenen %18,7 eta aldiz, euskara ikasten aritu zirenen %15,1.

Beste muturrean aldiz, beren ikasketa helburuak lortu ez zituztela, eta hasi zirenean espero baino gutxiago ikasi zutela diote euskara ikasten aritu zirenen %31,5ek; ingelesa ikasten aritu zirenen %24,6k eta frantsesa ikasten aritu zirenen %22,3k. Bere helburuak lortu ez zituztela diotenen proportzioa altuagoa da beraz euskara ikasleen artean, frantses edota ingeles ikasleen artean baino.

47. Grafikoa: Frantsesa, ingelesa, euskara, gaztelania edo beste hizkuntzaren bat ikastetxetik kanpo ikasten hasi zinenean espero zenuena baino gehiago, berdin ala gutxiago ikasi duzu? (%)



Iturria: Siadeco, 2007.

9.-

HIZKUNTZEN PRESENTZIA SOZIALA

9.1.- PRESENTZIA SOZIALAREN IRAGANEKO BILAKAERA

Bere iritziz, bere ingurune sozialean, azken 5 urteetan 4 hizkuntza hauen presentziak zein bilakaera izan duen galderari emandako erantzunetan azpimarratzekoa da, herritarren %70,6k euskararen presentziak eta %65,2k ingelesaren presentziak gora egin duela adierazi izana.

Aitzitik, bere ingurune hurbilean azken 5 urteetan frantsesaren presentziak gora egin duela diote herritarren %13,3k eta gaztelaniaren presentziak gora egin duela %10,6k.

Herritarren %25,2k aldiz, frantsesaren presentziak behera egin duela erantzuten dute.

48. Grafikoa: Zure ingurune sozialean, azken 5 urteetan, frantsesaren, ingelesaren, euskararen eta gaztelaniaren presentziak gora egin du, mantendu egin da ala behera egin du? (%)



Iturria: Siadeco, 2007.

9.2.- PRESENTZIA SOZIALAREN ETORKIZUNEKO BILAKAERA

Eta aldiz, bere iritziz, bere ingurune sozialean, datozen 5 urteetan, hizkuntza hauen presentziak zein bilakaera izango duen galderari, herritarren %72,3k euskararen presentziak gora egingo duela erantzun dute, eta %67,8k ingelesarenak.

Bere ingurune hurbilean datozen 5 urteetan frantsesaren presentziak gora egingo duela diote herritarren %16,8k eta gaztelaniaren presentziak gora egingo duela aldiz, %12,7k.

Datu hauen argitan beraz, herritarrek euskarak eta ingelesak azken 5 urteetan presentzia irabazi dutela pertzibitzeaz gain, datozen urteetan presentzia honek gora egiten jarraituko duela ere pentsatzen dutela ondoriozta daiteke.

Lehen frantsesak behera egin duela zioen herritarren ehunekoa %25ekoa zela ikusi dugu; joera hori berretsi eta behera egiten jarraituko duela dio orain %20,0k.

49. Grafikoa: Eta zure ustez, datozen 5 urtetan, zure ingurune sozialean, frantsesak, ingelesak, euskarak eta gaztelaniak duten presentziak gora egingo du, mantendu egingo da ala behera egingo du? (%)



Iturria: Siadeco, 2007.

9.3.- ERABILERA PERTSONALAREN ETORKIZUNEKO IKUSPEGIA

Ingurune hurbilean, azken 5 urteetan nahiz datozen 5 urteetan aztergai ditugun 4 hizkuntza hauen presentziaren bilakaeraz herritarrek duten pertzepzioa aztertu ondoren, gatozen beraiek, pertsonalki, etorkizun hurbilean hizkuntza horiek gehiago ala gutxiago erabiliko ote dituzten galderari emandako erantzunak azaltzera.

Adierazgarria da populazioaren %36.2k datozen 5 urteetan bere euskararen erabilera emendatu egingo dela uste duela; eta herritarren %24.2k ingelesaren erabilera emendatuko duela uste duela denbora tarte horretan. Frantsesa edo gaztelania datozen 5 urteetan gehiago erabiliko dutela diotenak, %6aren inguruan kokatzen dira.

Honekin batera azpimarratu datozen 5 urteetan pertsonalki euskara gutxiago erabiliko dutela dioten herritarrak %1,6 besterik ez direla, eta ingelesa gutxiago erabiliko dutela diotenak %2,0. Gaztelaniaren kasuan %3,1ek dio hori, eta frantsesaren kasuan ia %6k.

50. Grafikoa: Oro har, datozen 5 urteetan zer uste duzu: fransesa orain baino gehiago, orain bezala ala orain baino gutxiago erabiliko duzula? eta ingelesa? eta euskara? eta gaztelania? (%)



Iturria: Siadeco, 2007.

9.4.- HIZKUNTZEN PRESENTZIA-MAILAREKIKO PERTZEPZIOAK, EUSKARAREN EZAGUPENARI JARRAIKI

Euskarak eta beste hizkuntzek ere gizartean duten presentzia mailarekiko herritarrek dituzten pertzepzioak diferenteak dira, herritarrak hiztun talde batekoak edo bestekoak izan:

- Azken 5 urteetan euskarak gizartean duen presentziak gora egin duela uste dutenak proportzionalki gutxiago dira euskal elebidunen artean (10 puntuko aldea batez bestekoarekiko) eta aldiz proportzionalki gehiago dira erdal elebidunen, elebidun hartzaileen eta erdaldun elebakarren artean. Euskararen presentziak izan duen bilakaeraz, nolabait ere, ezkorragoak agertzen dira euskal elebidunak.

- Etorkizunean euskararen presentziak izango duen bilakaerari buruz ere euskal elebidunak ezkorragoak dira gainerako hiztun taldeak baino (5,6 puntuko aldea bestez bestekoarekiko), baina aldiz proportzionalki baikorragoak dira elebidun orekatuak nahiz erdal elebidunak.

- Norberaren bizimoduan euskara gehiago erabiltzeko aukerei dagokienean berriz, adierazgarria gertatzen da batez bestekoaren gainetik elebidun hartzaileak (%55,3) eta erdal elebidunak (%46,1) agertzea. Erdaldun elebakarren multzoan euskara orain baino gehiago erabiliko dutela uste dutenen ehunekoa nabarmen baxuagoa da (%23,4).

- Gaztelaniarekiko erantzunetan, batez bestekoarekiko diferentziarik gehien euskal elebidunen multzoak erakusten du. Izan ere, multzo horretan proportzionalki gehiago dira bai gaztelaniak presentzia irabazi duela, baita datozen urteetan irabazten jarraituko duela diotenak.

- Ingelesaren kasuan berriz, elebidun orekatuen multzoan proportzionalki nabarmen gehiago dira ingelesaren presentziak gora egin duela eta egingo duela adierazten dutenak.

38. Taula: Hizkuntzen iraganeko eta etorkizuneko gizarte presentziaren igoerarekiko pertzepzioak eta datozen 5 urteetan norberaren erabilera maila altuagoa izango dela pertzibitzen dutenak, hizkuntza eta elebitasun motari jarraiki (%)

Hizkuntzen gizarte presentzia		ELEBIDUNAK			ELEBIDUN HARTZAI-LEAK	ERDALDUN ELEBAKA-RRAK	GUZTIRA
		EUSKAL elebiduna	Elebidun OREKATUA	ERDAL elebiduna			
Hizkuntzen gizarte presentziaren igoerarekiko pertzepzioa azken 5 urteetan	Euskara	60,9	70,6	73,6	73,3	73,8	70,7
	Gaztelania	16,9	10,7	9,8	8,0	8,5	10,6
	Ingelesa	66,4	77,0	66,7	64	58,4	65,1
	Frantsesa.....	13,9	11,2	17,2	9,8	13,9	13,3
Hizkuntzen gizarte presentziaren igoerarekiko pertzepzioa datozen 5 urteetan	Euskara	66,7	74,6	77,2	71,2	73,0	72,3
	Gaztelania	14,3	11,9	13,5	9,7	13,4	12,7
	Ingelesa	68,5	72,9	70,5	68,9	62,7	67,8
	Frantsesa.....	18,1	15,2	16,1	15,0	18,3	16,8
Datozen 5 urteetan norberaren erabilera maila altuagoa izateko pertzepzioak	Euskara.....	31,1	34,5	46,1	55,3	23,4	36,2
	Gaztelania	4,6	5,1	5,2	5,8	7,9	6,0
	Ingelesa	28,6	33,9	30,1	26,2	12,5	24,2
	Frantsesa.....	6,7	7,3	8,8	7,6	4,6	6,7

Iturria: Siadeco, 2007.

10.- NORMALIZAZIO JARDUERAREN BALORAZIOA

10.1.- NORMALIZAZIO ERAGILEEN BALORAZIOA

Euskara sustatzeaz eta promozionatzeaz arduratzen diren zenbait eragileri buruzko iritzia galdetu zaie herritarrei, ea beraien ustez eragileok dagokiena baino gehiago, dagokiena ala dagokiena baino gutxiago egiten ari ote diren euskararen sustapenean.

Azpimarratu herritarren %30,8rentzat beren herriko Udala eta %30,1entzat Eusko Jaurlaritza behar baino gutxiago egiten ari direla. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere, %26,8aren iritziz, behar baino gutxiago egiten du, eta euskara elkarte eta taldeek ere dagokiena baino gutxiago egiten dutela uste dute herritarren %14,7k.

Bestalde, eragileok dagokiena baino gehiago egiten ari direla irizten dutenak %8,2aren inguruan kokatzen dira euskara elkarte eta taldeen kasuan, %5,1ean Udalaren kasuan, eta %3-%4aren inguruan Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan.



Ondoren, euskararen sustapenean erakundeek egindako lana egokia dela erantzun duten herritarrak, adin-multzoari, eskualdeari eta elebitasun-motari jarraiki aztertuko ditugu; erakundeok egiten duten lanarekiko gustuen agertzen direnak ezagutze aldera.

Adinari jarraiki, 31-45 urte bitarteko gazte helduak proportzionalki gehiago dira erakundeok dagokiena egiten dutela esaterakoan, eta galdetutako 4 erakundeen kasuan erantzuten dute dagokiena egiten dutela batez bestekoan baino proportzio altuagoan. Adin-multzo honetakoak dira, nolabait ere eragileok egiten dutenarekin gustuen agertzen direnak. Honekin batera aipatu 15-30 urteko gazteen artean ere proportzionalki gehiago direla euskara elkarte eta taldeak dagokiena egiten dutela diotenak (%59); eta 46-60 urte bitarteko helduen artean aldiz, beren herriko Udalak dagokiona egiten ari dela diotenak (%54,1)

39. Taula: Euskararen sustapenean erakundeek egindako lanaren balorazioa, adinari jarraiki: dagokiena egiten dutela uste dutenen ehunekoak

Erakundea	Gazteak (15-30 urte)	Gazte helduak (31-45 urte)	Helduak (46-60 urte)	Adinekoak (≥61 urte)	GUZTIRA
Euskara elkarte eta taldeak	59,0	56,1	55,2	44,3	53,6
Zure udala	44,1	53,0	54,1	41,7	48,5
Gipuzkoako Foru Aldundia	39,8	47,9	41,4	36,4	41,8
Eusko Jaurlaritza	42,1	50,0	44,3	37,3	43,8

Iturria: Siadeco, 2007.

Eskualdeari jarraiki, Debarroko eta Goierri/Tolosaldeko herritarrak dira erakundeok egiten duten lanarekiko gustuen agertzen direnak, bertan ematen baitira 4 erakunde hauek dagokiena egiten dutela dioen erantzun portzentajerik altuenak.

Honekin batera azpimarratu, Urola Kostaldeko herritarrek, batez bestekoak baino iritzi hobea duela beraien herriko Udalak euskararen sustapenean egiten duen lanarekiko, %53,8k dagokiona egiten dutela erantzun baitute.

40. Taula: Euskararen sustapenean erakundeek egindako lanaren balorazioa, eskualdeari jarraiki: dagokiena egiten dutela uste dutenen ehunekoak

Erakundea	Bidasoa Beherea	Debarroa	Donostialdea	Goierri eta Tolosaldea	Urola Kostaldea	GUZTIRA
Euskara elkarte eta taldeak	50,4	62,3	48,8	61,8	50,4	53,5
Zure udala	40,5	57,4	41,5	61,3	53,8	48,4
Gipuzkoako Foru Aldundia	40,5	48,8	37,5	48,2	41,9	41,8
Eusko Jaurlaritza	39,7	51,2	40,6	50,0	40,7	43,8

Iturria: Siadeco, 2007.

Oro har esan elebidun hartzaileak eta erdal elebidunak direla erakundeok euskararen sustapenean egiten dutenarekiko gustuen agertzen direnak; izan ere elebidun hartzaileen kasuan, 4 eragileok dagokiena egiten dutela diotenen ehunekoak, batez bestekoan baino altuagoak dira.

Aitzitik, aipatzekoa da euskal elebidun eta elebidun orekatuen artean, egindako lanarekiko baloraziorik positiboena euskara elkarte eta taldeek jasotzen dutela, (%56 inguruk dagokiena egiten dutela diote).

41. Taula: Euskararen sustapenean erakundeek egindako lanaren balorazioa, elebitasun-motari jarraiki: dagokiena egiten dutela uste dutenen ehunekoak

Erakundea	ELEBIDUNAK			ELEBIDUN HARTZAILEAK	ERDALDUN ELEBAKARRAK	GUZTIRA
	Eusk elebakarra + EUSKAL elebiduna	Elebidun OREKATUA	ERDAL elebiduna			
Euskara elkarte eta taldeak	56,3	56,7	52,1	59,1	47,4	53,5
Zure udala	47,1	40,1	50,5	54,0	48,8	48,4
Gipuzkoako Foru Aldundia	39,5	33,3	44,6	46,5	43,1	41,8
Eusko Jaurlaritza	40,3	34,1	45,8	52,0	44,7	43,8

Iturria: Siadeco, 2007.

10.2.- BALIABIDEEN ERABILERARI BURUZKO IRITZIA

Euskara promozionatzeko erabili diren baliabide publikoek izan duten emaitza baloratzeko galdetuta, ia herritarren erdiek (%52.2) euskara promozionatzeko erabili diren baliabide publikoek izan duten emaitza oso egokia (%4.4) edo nahikoa egokia (%47.8) izan dela uste badu ere, %30.7k baliabide hauek izan duten emaitza ez oso egokia (%26,0) edo batere egokia (%4.7) ez dela izan uste dute.

52. Grafikoa: Zure ustez, euskara promozionatzeko erabili diren baliabide publikoek izan duten emaitza nolakoa izan da: oso egokia, nahikoa egokia, ez oso egokia ala batere egokia ez? (%)



Iturria: Siadeco, 2007.

Erabilitako baliabideekin emaitza oso eta nahikoa egokiak lortu direla uste dutenen adinari, eskualdeari eta elebitasun-motari erreparatuz gero, emaitzak aurreko atalean ikusitakoarekin bat datozela jabetuko gara.

Honela, erabilitako baliabide hauekin emaitza oso eta nahikoa egokiak lortu direla uste dutenak proportzionalki gehiago dira gazte helduen artean (%55,6), Debarroko (%60) eta Goierri/Tolosaldeko (%56,5) herritarren artean, eta elebidun hartzaile (%61,8) eta erdal elebidunen (%54,4) artean; nolabait ere bat datoz proportzionalki, eragileok zegokiena egiten ari zirela neurri handiago batean uste zuten kategoriekin.

42. Taula: Euskararen sustapenerako erabilitako baliabideekin emaitza oso eta nahikoa egokiak lortu direla uste dutenak (%), adina, eskualdea eta elebitasun motari jarraiki

ADINA		Gazteak (15-30 urte)	49,8
		Gazte helduak (31-45 urte)	55,6
		Helduak (46-60 urte)	51,8
		Adinekoak (≥61 urte)	50,3
ESKUALDEA		Bidasoa Beherea	44,7
		Debarroa	60,6
		Donostialdea	50,3
		Goierri eta Tolosaldea	56,5
		Urola Kostaldea	48,3
ELEBITASUN MOTA	ELEBIDUNAK	Eusk elebakarra + EUSKAL elebiduna	52,7
		Elebidun OREKATUA	49,4
		ERDAL elebiduna	54,4
	ELEBIDUN HARTZAILEAK		61,8
	ERDALDUN ELEBAKARRAK		46,3
GUZTIRA			52,3

Iturria: Siadeco, 2007.

11.-

ONDORIO NAGUSIAK

1.- Egoera soziolinguistiko oso desberdineko inguruneak bereizi beharra dago Gipuzkoako lurraldearen barnean eta gipuzkoarrek errealitate soziolinguistikoa bizi duten moduetan eta hizkuntzekiko dituzten pertzepzioetan ere alde nabarmenak daude:

- Gaztelania da Bidasoa Beherea (%62), Donostialdea (%60) eta Debarroa (%52) eskualdeetako biztanleriaren gehiengoak jaso duen lehen hizkuntza, baita biztanleriaren gehiengoak hobekien menderatzen duen hizkuntza ere – Bidasoa Beherea, %79; Donostialdea %74 eta Debarroa %62 - eta baita gehiengoak gehien erabiltzen duen hizkuntza ere. Euskara da berriz Urola Kostaldean (%67) eta Goierri-Tolosaldean (%52) biztanleriaren gehiengoaren ama hizkuntza, gehienek edo ia gehienek hobekien menderatzen duten hizkuntza – Urola Kostaldean %65 eta Goierri-Tolosaldean %46 – eta ohiko harremanetan gaztelania baino erabilera handiagoa duena (Urola Kostaldearen kasuan) edo nahiko parekoa (Goierri-Tolosaldea zonaldearen kasuan). Gipuzkoako 15 urte edo gehiagoko biztanleriarekiko lehendabiziko hiru eskualdeek duten pisua %74koa izanik, lurralde osoari dagozkion datuak lehendabiziko multzoan geratzen dira, alegia gipuzkoar gehiengoaren lehen hizkuntza gaztelania da (%52), gaztelania da gehienek (%65) ongien menderatzen duten hizkuntza eta gaztelania da gehienek nagusiki erabiltzen duten hizkuntza.

- Gipuzkoar biztanleria ez euskaldunaren erdia baino gehiagok euskara inposatu nahi den hizkuntza gisa ikusten du (%55) -elebidunen artean %31k- eta promozionatua dagoen hizkuntza gisa ere bai (%73) -elebidunen artean %56k-.

- Gaztelania eta euskararen presentzia sozialak azken 5 urteetan izan duen bilakaerarekiko uste edota pertzepzioak desberdinak dira talde linguistiko batetik bestera, gehien menderatu eta gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania denean, euskararen bilakaerarekiko pertzepzioak positiboagoak dira; aldiz nagusiki euskaraz bizi diren gipuzkoarren multzoan euskararen bilakaerarekiko pertzepzioak ez dira hain positiboak.

- Gaztelaniak, euskarak baino erakargarritasun eta prestigio handiagoa du erdaldun elebakarrak diren gipuzkoarren artean.

2.- Ondorioz, euskararen sustapenerako egiten den ahaleginaren eraginkortasun mailaren ikuspegitik, Gipuzkoako lurraldearen hizkuntza normalkuntzarako estrategietan, bi bide bereizi beharra dago. Batetik hizkuntza normalkuntzarako jarduera espezifikoa, fokalizatua edota segmentatua eskatzen duena eta bestea lurralde osorako eta gipuzkoar guztiei zuzenduta egin beharrekoa:

- Hizkuntza normalkuntzarako jarduera espezifiko eta segmentatua: irizpide teknikoei jarraiki lehentasunezko kontsideratutako gizarte segmentu jakin batean eragiteko, helburu linguistiko propio batzuk ezarri eta horiek erdiesteko diseinatu, burura eraman eta ebaluatutako ekintza edo estrategia espezifikoak.

- Hizkuntza normalkuntzarako lurralde mailako jarduera orokorra: ikuspegi orokorretik Gipuzkoako testuinguru soziolinguistiko desberdin guztietarako eragite indar positiboa izango dutenak, nahiz eta testuinguru batzutako eraginkortasun maila, beste batzutakoa baino baxuagoa izan.

- Gipuzkoar gehienen artean hizkuntzekiko eta errealitate soziolinguistikoarekiko, **egoera bertsuak, iritzi bateratuak** edo diferentzia nabarmenik markatzen ez dutenak zein diren ezagutzea garrantzitsua da, bereziki lurralde mailako aplikazioa izango duten hizkuntza politikak zehazterakoan:

    - Gaztelania gipuzkoar ia guztiek dakiten hizkuntza da (%98) eta komunikaziorako euskara baino erosoagoa biztanleriaren zati handi batentzat, bereziki idatzizko erabilerarako -%72arentzat irakurtzerakoan eta %73arentzat idazterakoan-. Bizimodu pertsonalerako gaztelaniaren beharra handia da gehiengoarentzat (%78) eta hizkuntza praktikoa dela ere, gehiengoak hala irizten du (%96).

    - Euskarak erakargarritasun bat sorrarazten du gehiengoarengan (%81), etorkizunean bere presentzia gero eta handiagoa izango denaren pertzepzioa nahiko zabaldua dago (biztanleriaren %72) eta aita-amen kasuan euren ondorengoek euskara menderatu dezaten ere zabaldua dagoen nahia da (%83). Euskara eta gaztelania, biak, Gipuzkoan hizkuntza ofizial izatearekiko adostasuna ere nahiko zabala da (%78).

    - Ingelesa, gipuzkoarren hizkuntza jarrera eta portaeretan gero eta presentzia eta garrantzia handiagoa duen hizkuntza da dudarik gabe. Hizkuntza modernoa (%70), praktikoa (%84), gero eta presentzia handiagoa izango duena (%68). Gaztelania eta euskararekin batera, ondorengoek ezinbestean jakin eta menderatu beharreko hizkuntzatzat hartzen da.

3.- Gipuzkoar erdien (%51,7) **lehen hizkuntza** gaztelania da, %37,7arena euskara eta biak (euskara eta gaztelania) %6,6arena. Adierazgarria da lehen hizkuntza ez euskara eta ez gaztelania ez den beste hizkuntza bat duten gipuzkoarrak %4 badirela. Belaunaldi batetik bestera gaztelaniaren hizkuntza gaitasunean izandako igoera handiagoa da euskararenean izandakoa baino: inkestatuen erdiek (%50,6) euskaraz ongi edo oso ongi hitz egiteko gai direla erantzun dute eta inkestatuen gurasoena %46 eta 48 artean kokatzen da (%46,7 aita eta %48,4 ama); ondorioz 2 puntu inguruko aldea legoke belaunaldi batetik bestera euskararen kasuan. Mintzatzerakoan gaztelania ongi edo oso ongi dakitenak inkestatuen %98 dira eta euren aita-ametan ehuneko hori %87 eta 88aren bueltan kokatzen da; ondorioz gaztelaniak gurasoetatik seme-alabetara izandako igoera 10 puntu ingurukoa da, gaztelaniazko gaitasun-maila euskarazkoa baino altuagoa izanik gainera. 16 urtez beherako seme-alabak dituzten 10 gipuzkoarretatik 8rentzat, euren ondorengoek euskara eta gaztelania ondo menderatzeak garrantzia handia du; seme-alabek ingelesa jakiteri garrantzia handia ematen diotenak ere hirutik bi badira.

4.- **Euskararen irabazi-galera indizea** positiboa da orokorrean, %6koa izanik eta adin multzoen araberako aldeak nahiko handiak dira, 45 urtez beherakoetan indize hori positiboa izanez eta 45 urtetik gorakoen artean berriz, negatiboa.

5.- Gipuzkoarren **gaztelania, euskara, ingelesa eta frantsesaren ezagupen maila**:

- Gaztelania, 15 urtez gorako ia gipuzkoar guztiek dakiten hizkuntza da, mintzamen trebezietan oso ongi edo ongi ulertzeko gai baitira %99 eta oso ongi edo ongi hitz egiteko %98.

- Euskarari dagokionean, 15 urtez gorako gipuzkoarren erdiek badakite euskara (ulertu %61ek eta hitz egin %51k).

- Ingelesez mintzatzeko 5etik 1 gai da (%20) eta frantses hizkuntzan gipuzkoarrek ahozko komunikaziorako duten ezagupen maila nabarmen baxuagoa da (%10 dira ongi edo oso ongi hitz egiteko gai).

6.- Euskara eta gaztelaniaren ezagupenarekiko **elebitasun-mailaren** datuak:

- Euskaldun elebakarren ehuneko orokorra 1,6 izanik, ia guztiak 60 urtez gorakoak dira. Gipuzkoar elebidunak %49 dira, horietatik %18 euskal elebidunak izanik, %15 elebidun orekatuak eta %16 erdal elebidunak. Elebidun hartzailea da bostetik ia bat (%19) eta azkenik erdaldun elebakarrak %31.

7.- Gipuzkoar biztanleriaren **eleanizatasun-maila, euskara, gaztelania, ingelesa eta fratsesarekiko**: 15 urtez gorako 10 gipuzkoarretatik 4 (%40) elebakarrak dira, gehienak (%38) erdaldun elebakarrak. Biztanleriaren %42,8 elebiduna da: %34k euskara eta gaztelania dakite, %4k gaztelania eta ingelesa eta beste %4k gaztelania eta frantsesa. Biztanleriaren %16 hirueleduna da: euskara, gaztelania eta ingelesarekin %11; euskara, gaztelania eta frantsesarekin %2 eta gaztelania, ingelesa eta frantsesarekin beste %2 inguru. Euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa dakizkiten 15 urtez gorako gipuzkoar lauledunak %2 eskas dira, 15-30 urte arteko gazteen artean berriz %3.

8.- Biztanleriaren %20,8 hitz egiterakoan **euskaraz gaztelaniaz baino erosoago** moldatzen da, ulertzerakoan %17,7, idazterakoan %13 eta irakurtzerakoan %11,5.

9.- Eguneroko bizimoduan eremu desberdinetan ia beti euskara erabiltzen dutenei erreparatuz, %22,4k familian ia beti euskaraz egiten du, %17,2k lagun artean, %16,4k udaletxe mailan, %15ek lan munduan, %11,3k Foru Aldundian, %10,7k ostalaritzan, %10,2k osasun zerbitzuetan eta %9,3k komertzioetan.

10.- Erdal elebakarren multzoa alde batera utzita, euskaraz komunikatu nahi eta ezinean maiz edo oso maiz gertatzen diren 15 urtez gorako gipuzkoarrak %26,9 dira (biztanleria osoarekiko %18) eta gaztelaniaren kasuan ehuneko hori %2,4koa da, hiztun talde guztiak kontuan hartuta.

11.- Euskararen ezagutza maila jakin bat duen (euskaraz oso ongi, ongi edo zerbait hitz egiten dutenak) eta eguneroko bizitzan euskara gehiago erabili nahiko lukeela adierazi duen populazio osoaren %42a kontuan hartuta, %16k soilik onartzen dute euskara gehiago ez erabiltzeko ardura batez ere eurena denik, bai familian, bai eguneroko eginkizunetan (lanena, ikasketetan,…), eta baita bere denbora librean (zaletasunak, lagunartean,…) ere. Biztanleria osoarekiko %7 izango litzateke multzo horren pisua.

12.- Nolabaiteko maiztasunarekin eguneroko bizitzan euskaraz hitz egin nahi eta ezin dutela dioten pertsonek, pertsona euskaldunekin nahi adina euskara ez erabiltzeko ematen duten arrazoi nagusienen artean, batetik "besteen ohitura falta edo erdaraz hitz egiteko duen ohitura" (%73arentzat garrantzia handia edo nahikoa duen faktorea da) eta bestetik "euskaraz ez dakien jendea aurrean egotea" (%69arentzat garrantzia handia edo nahikoa duen faktorea) daude.

13.- Gipuzkoako 15 urtez gorako biztanleria oro har hartuta, gehiengo zabal batek bi hizkuntzak, afektiboki bereak sentitzen ditu; 10 gipuzkoarretik 8k gaztelania hala ikusten dute ("asko" eta "nahikoa" erantzunak batuta) eta euskararen kasuan portzentaia hori 77koa da.

14.- 15 urtez gorako 4 gipuzkoarretatik 3k (%77), Gipuzkoan bi hizkuntza ofizial izatea abantaila edota aukera bezala ikusten dute, 10etik 1 da desabantaila edo arazo gisa ikusten duena (%10) eta erantzun bat eman duen gainerako %10ak aldi berean abantaila eta desabantaila gisa ere ikusten du hori.

15.- Hizkuntzen gainekiko pertzepzioak aztertzerakoan, euskara, gaztelaniarekin batera, Gipuzkoan etorkizuna duen hizkuntza gisa ikusten da, baina aztertutako beste hizkuntzengandik aldendu egiten da hizkuntza erakargarriagoa , ikasteko zailagoa eta politizatuagoa dagoela esaterako orduan. Honela:

a. %95 ados dago euskara Gipuzkoan etorkizuna duen hizkuntza dela baieztatzerakoan; uste honen portzentaia gaztelaniari dagokionaren antzekoa da (%94), eta ingelesa (%78) eta frantsesarenak(%33) baino altuagoa.

b. %81ari euskara hizkuntza erakargarria suertatzen zaio, gaztelania (%75), ingelesa (%61) eta frantsesaren (%45.2) gainetik.

c. %64arentzat euskara ikasteko hizkuntza zaila da. Balio hau ingelesa (%40), frantsesa (%28) eta gaztelaniarenari (%14) gailentzen zaielarik.

d. %44 ados dago euskara politizatua dagoen hizkuntza dela dioen iritziarekin; honek gaztelaniari (%31), ingelesari (%20) eta frantsesari (%10) dagozkien portzentajeak gainditzen ditu.

Gaztelania hizkuntza praktikoa eta beharrezkoa izateagatik bereizten da besteengandik. Ingelesa prestigioa duen, promozionatua dagoen, modernoa den eta inposatu nahi den hizkuntzatzat hartzen da.

16.- Hizkuntza desberdinen beharra zenbaterainokoa den galdetutakoan, Gipuzkoako populazioaren %78,3arentzat gaztelania oso beharrezkoa da eta euskara %51,2arentzat. Beren eguneroko bizimoduan ingelesa oso beharrezkotzat jotzen dutenak %10aren inguruan kokatzen dira, eta frantsesaren ehunekoa %2,6an geratzen da.

17.- Azken urteetan euskararekiko interes mailak gora egin du gipuzkoarren artean: hamarretik ia 4k, gaur egun euskararekiko duten interesa duela bost urte zutena baino askoz ere handiagoa (%14.4) edo dezente handiagoa (%25.4) dela diote; ingelesari dagokionez, 4tik 1ek pasatxok erantzuten du hori (%28,6); gaztelaniaren kasuan 10etik 1ek pasatxok (%12,5) eta frantsesaren kasuan 10etik 1ek (%10,4).

18.- Euskararekiko gero eta interesatuagoa egotearen eta hizkuntza hori ikasteko egindako ahaleginaren artean ez da loturarik ikusten. 5 gipuzkoarretik 1ek inoiz eskolaz kanpo euskara ikasteko ahalegina egin du eta ingelesaren kasuan ehuneko hori 29 bada. Ikasketa helburuak lortu ez zituztela, eta hasi zirenean espero baino gutxiago ikasi zutela diote euskara ikasten aritu zirenen %31,5ek; ingelesa ikasten aritu zirenen %24,6k eta frantsesa ikasten aritu zirenen %22,3k. Bere helburuak lortu ez dituztela diotenen proportzioa altuagoa da beraz euskara ikasleen artean, frantses edota ingeles ikasleen artean baino.

19.- Gipuzkoar gehienen ustez, euskararen gizarte presentziak gora egin du eta gora egiten segituko du gainera: herritarren %70,6k euskararen presentziak eta %65,2k ingelesaren presentziak gora egin duela adierazi dute; herritarren %72,3k euskararen presentziak gora egingo duela erantzun dute, eta %67,8k ingelesarenak.

20.- Euskararen sustapenean ari diren erakundeekiko iritzietan, herritarren %30,8rentzat beren herriko Udala eta %30,1entzat Eusko Jaurlaritza, behar baino gutxiago egiten ari dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere, %26,8aren iritziz, behar baino gutxiago egiten du, eta euskara elkarte eta taldeek ere dagokiena baino gutxiago egiten dutela uste dute herritarren %14,7k.

21.- Euskara promozionatzeko erabili diren baliabide publikoek izan duten emaitza baloratzeko galdetuta, ia herritarren erdiek (%52.2) euskara promozionatzeko erabili diren baliabide publikoek izan duten emaitza oso egokia (%4.4) edo nahikoa egokia (%47.8) izan dela uste badute ere, %30.7k baliabide hauek izan duten emaitza ez oso egokia (%26,0) edo batere egokia (%4.7) ez dela izan uste dute.